


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko apirilaren 2a / 668. zenbakia



GOIKOBALU ABESBATZAK

15

URTE BETE DITU

ORAIN ETA HEMEN: SAN JOSEPE ITXIKO DUTE/8 • GAZTEAK: GAZTETXEAREN URTEURRENA/15

AZALA: ALEX AZKARATE

GREMIOEN GIDA/24



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Euskal Herriko Itzulia

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

EUSKAL
HERRIKO
ITZULIA
Babeslea:



EUSKAL HERRIKO ITZULIA
Saio berezia

Martitzenean, apirilaren 6an,
20:30ean

KALEINKESTA/ Irlandan prohibidu egin daue leku publikuetan erretie. Ze pentsetan jatzu?



HODEI LASKIBAR
Ikasle



INES ESTRELLA
Langillie




JONE TAPIA
Ikasle



LOREA JIMENEZ
Ikasle



DIEGO SANCHEZ
Langillie



JOSE MARTIN
Langillie

Ez dakit ze esan. Pentsetan dot prohibidutie oso erabaki gogorra dala, beti egon dalako erretieko ohitturie. Hala eta be, erretzailliek errespeto haundixae euki biherko leukie.

Nik errespetau egitten dot hori, baiñe neuretako ez da erabaki ona. Neu erretzaillie naz eta ez dot ondo ikusten. Lege hori jarten badaue, tabernek eta restaurantiek igerri egingo daue.

Neu ez naz erretzaillie, eta neuri oso ondo pentsetan jat. Akaso, tabernetan zerbait berezixe egin beharko leukie, baiñe neure ustez, oso erabaki ona da. Kalien erretieko aukerie daukie.

Leku publikuetan erretie prohibidutie txarto ikusten dot, ez dot uste erabaki ona danik. Erretien ez dauenak bestien keiek aguantetan daue, baiñe hori be relatibue da.

Oin dala gutxi itxi dot tabakue, baiñe erabaki hori ez dot ondo ikusten. Leku batzuetan prohibidutie ondo dau, baiñe danetan prohibidutie... Tabernari-xok asko igerriko geuke.

Erretzaillie danandako oso erabaki txarra da. Tabernara jueten dana ardautxo bat hartzera eta zigarrotxo bat erretera doie, eta zigarrue kenduz gero... Ez litzakok asko igerriko geuke.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOETAN APURKETAK EGIN DITUZTE Joan den egue-nean, Munar alboan aparkatuta zeuden hainbat autotan apurketak egin zituzten. Besteak beste, atzerako ispiluak apurtu zituzten. Ingu-ru horretako bizilagunak oso haserre daude, eta diotenez asteburu askotan egiten dituzte halako apurketak autoetan. Dagokienei eska-tu gura diete arazo horri konponbidea aurki diezaiotela.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 9

KIROLA / 11

KULTURA / 14

Palestina herbagai

Palestinaren gaur egungo egoera aztertu dugu Oskar Busto brigadistaren laguntzarekin.

Mendiko bizikleta

Jose Angel Lopez Musakolan jokatu zen mendiko bizikleta lasterke-tan, master 40 mailan, lehena.

Arrasate Lehiaketak

AEDk aditzera eman du XVII. Arrasate Lehiaketen epaia. Apirilaren 22an izango da sari banaketa.

ASTEKODATUA

149

LAGUNEK ESKU HARTU DUTE ARRASATE LEHIAKETETAN

149 lagunek esku hartu dute XVII. Arrasate Lehiaketetan. AED da lehiaketa horien antolatzailea, eta antolatzaileek parte-hartzearen gaineko balorazio positiboa egin dute.

BESTEKEESANA

“

Erabaki nuen garbi hitz egitea, eta dena esatea. Beste batzuek ez dute hala hartzen: gaixotasuna agertzen

zaienean, sufritzen dute ikaragarri, eta dena gordetzen dute. Ikaragarri errespetatzen dut hori; oso erabaki pertsonala da, baina iruditzen zait horrela gehiago sufritzen dela: bakartu egiten zara eta iristen zara pentsatzera zuk zeuk bakarrik daukazula gaitza. Baina milaka eta milaka lagun gara! (...) Zer nuen esan zidaten arte, pasatu nituen hamabi ordu oso latzak. Idazteko ariketa egitean, arrazionalizatzen ari zara, eta zure beldurrarekin negoziatzen. Behin aterata, errazago da kontrolatzea (...) Jon Salaberri arrasatearra gogoratu dut. Hiesaren *aurpegia* bihurtu zen, eta sekulako lana egin zuen”

JOXE ARANZABAL
'BERRIA' / 2004-03-24

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Lau egun

Lau egun egundoko, zirkoa hankaz gora jarri dutenak. Artista bakoitza bere berean agertu zaigu, eta berriro ere konturatu gara trapezista gehiegi dagoela sarerik gabe lanik egiten ez dakiena.

Lau egun martxokoak, ehun eta laurogeita hamar hildako Madrilen, bi euskaldun besterik ez Euskal Herrian. Agian horregatik joan zaizkigu handikien soineko urratuen tarratsik barik, haga erdira jaitsitako banderarik gabe. Gure komunikabide ofizialista txepelen aienak non? Gure gorbatadun politiko profesionalen ahopeko kondenez aparte, zer? Izan ere, datorren lekutik datorrela kondentzen ez duten horietakoak ei ziren biak, kalitate moral baxukoak beraz. Halakoxeak erretzen zituen antzina Gaztelako inkisidoreak, basapiztiak bailitzan.

Lau egun baino gehixeago daramatzagu herri honetan

inperioak taxutu eta egunean hogeita lau orduz haizatutako pedagogia anker eta faltsua jasaten, okerrago, askotan geure egiten: demokratikak eta biolentoak, onak eta gaitzoak. Mundua ulergarriago zaigu horrela, xingleago, umeei ere halaxe esaten zaie. Ostean

“Ekaitzak gominadun koadrila neofrankista hankaz eraman duen honetan Politikaren ordua heldu ei da”

datoz, ezinbestean, debekua, bazterketa, kartzela, tortura eta Lynch-en legea.

Eta laugarren egunean katarsi demokratikoa, pistako jefe berria Madrilen. Ekaitzak gominadun koadrila neofrankista hankaz gora eraman duen

honetan Politikaren ordua heldu ei da gure herrira, azkenean ere, politikakeriak alde batera utzita. Ondo da, atera bitez pistara euskal korapiloa askatuko duten artistak eta gera bedi kontortsionista behingoagatik kamerinoan. Herri borondatari, giza eskubide guztiei, nazio eta kultura orori errespetua, hara bidea, umeei ere badakite. Gustura egingo diagu txalo funtzioa amaitzean.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundifiano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 2**
Español. Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- ZAPATUA, 3**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- DOMEKA, 4**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 5**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- MARTITZENA, 6**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 7**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUENA, 8**
Español. Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 9**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualarria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako ebexa 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (meza nagusia (euskaraz))
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (meza nagusia (euskaraz))
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Bihar, zapatua, Arantzazura erromesaldia egingo dute bakearen alde. 08:30ean, autobusak Garibaitik eta Musakolatik irtengo dira. 09:30ean, Oñatitik oinez igoko dira. 12:00etan, otoitzaldia egingo dute Arantzazun. Txartelak honako saltokietan eskura daitezke: Zabaleta lurrindegian, Begoña lurrindegian (Musakola) eta Murumendiarrak gozotegian (San Andres).

SAETA TXAPELKETA
Bihar, zapatua, saeta txapelketa jokatu dute Al-Andalus elkarteak, 23:00etan. Aurretik, 22:30ean, *Momentos cofradieros sevillanos* bideo emanaldia egingo dute. Horrez gain, Aste Santuaren gaineko argazki erakusketa ipini dute.

TORPEDOLEVEL TALDEA
Gaur, egubakoitza, Torpedolevel taldeak *Ya te digo!* antzezlan egingo du Iamai tabernan, 00:00etan.

DOKE TXAPELKETA
Ertzi, domeka, doke txapelketa jokatu dute Kondekua parkean, Monterron azpian, 11:00etan. 7 eta 15 urte bitarteko umeek eta gaztetxoek esku hartuko dute. SUDC elkarteak antolatu du.

AEDrenAGENDA

FILM LABURREN EMANALDIA
Gaur, egubakoitza, film laburren emanaldia egingo dute Amaian, 20:30ean.

MAKILLAJE IKASTAROA
Apirilaren 24an, AEDk makillaje ikastaroa egingo du. 11:00etatik 14:00etara izango da. Eman izena apirilaren 22a aurretik. 12 euro ordaindu beharko dira. AEDkoek eta 18 urte baino gazteagoek, 10 euro.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erquin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erquin A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10 URTE ARRASATEN

Txirrindulari Itzulirako beroketa lanak

Orain dela hamar urte, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Arrasaten hasi zen. Horren aurretik, Geroa antzerki taldeak txirrindularitzaren gaineko antzezlan egin zuen. Horrez gain, eskoletako txirrindulari martxa ere egin zuten. Gaztetxo askok esku hartu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Aldamiño"



Aldamino.
— Aldamixo ere entzuten da gaur egun.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Josu Otxoari elkarrizketa

Astean elkarrizketa egin diogu aretxabaletar bati, Josu Otxoari. Orain arte modelo lanengatik ezaguna izan den arren, orain dela gutxi AEBetan egon da irakasle lanetan, eta handik Hawaiira ere joan da. Azkenaldian egindako bidaien berri eman digu Josuk. Goio Arana arrasatearrarekin ere egin dugu berba, Austrian *Goienkaria*-k jaso duen saria dela-eta. *Goienkaria*-k Europako diseinurik onenaren saria jaso du, eta Goio Aranak diseinatu zuen.

Hiru eguneko aste motza

Aste Santuko oporrak direla eta, datorren astean hiru egunez izango gara zuzenean. Astelehenetik eguaztenera ohiko saioak eskainiko ditugu herriko irradian, eta eguenetik aurrera, grabatutako tartek eskainiko ditugu musikaz lagunduta. Apirilaren 19an itzuliko gara, berriro, zuzeneko saioekin. Astelehen goizean txirrindularitza nagusituko da Arrasate Irratian, Euskal Herriko Itzulia Bergaran hasiko delako.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 28	-1 °C
MAXIMOA Martitzena, 30	14 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	46,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 24	10 °C	4 °C	14,5 l/m²
Eguena, 25	9 °C	2 °C	8,4 l/m²
Egubakoitza, 26	8 °C	2 °C	1,6 l/m²
Zapatua, 27	8 °C	4 °C	0,4 l/m²
Domeka, 28	7 °C	-1 °C	1,9 l/m²
Astelehena, 29	13 °C	3 °C	0,8 l/m²
Martitzena, 30	14 °C	7 °C	19 l/m²

Be4rgarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Edu Abasolo, *Gran Hermano VIP* saioaz, Xabier Agirre, *La Ratonera* antzezlanaz, Amaia Diaz de Monasterioguren, Iratxe lehorretaz; Josu Otxoa; Goio Arana...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUAZTENERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: merideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Amaia Zubiria

ASTEABIHITZETAN

Feminismoaren gaineko berbaldia

Emakume Txokoak antolatuta, eguaztenean, feminismoaren historiaren eta erronken gaineko berbaldia egin zuten. Berbaldi hori Feminismo Eskolaren hitzaldi zikloaren barnean antolatu zuten, eta ekitaldi horrekin amaitutzat eman dute Martxoaren 8ko ekitaldi sorta.

Arantza Campos Zuzenbidearen Filosofia irakasleak eta berdintasunean adituak egin zuten berbaldia, eta feminismoaren historia eta etorkizunerako erronkak azaldu zituen.

Debagoieneko eskola arteko abesbatza

Arizmendi Ikastolak antolatuta, Debagoieneko eskola arteko abesbatzen XVII. topaketa egin zuten zapatuan Amaia antzokian. Arizmendi ikastola, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxea eta Aramaioko San Martin Herri Eskola izan ziren ibarreko ordezkariak, baina horiez gain, beste ikastetxe askotako gaztetxoak ere izan ziren Arrasaten.

Gainera, Alemaniako Gymnasium Traben-Trarbach Big-Band taldekoek ere hartu zuten esku. Arrakasta handiko topaketa izan zen, Amaia antzokia goraino egon zen-eta beteta. Batzuk kanpoan geratu ziren, eta datorren urterako irtenbideren bat topatzen ahaleginduko direla agindu zuten antolatzailuek.

Ezker Batuko gazteen jardunaldiak

Asteburuan, Ezker Batua alderdiko gazteek jardunaldiak egin zituzten Arrasateko Ingurugiro Eskolan. Guztira, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Asturiasko berrogeita hamar gazte izan ziren Udalan.

Ezker Batuko gazteek lurralde bakoitzeko esperientziak trukatzeko eta eztabaida-gune izateko antolatu zituzten jardunaldiak. Besteak beste, bideo emanaldiak, hitzaldiak eta tailerrak egin zituzten.



Eskolako Agenda 21 hitzarmena sinatu dute

Arrasateko Udalak herriko ikastetxeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera Eskolako Agenda 21 hitzarmena sinatu berri du. Agenda 21 hitzarmenak natura zaintzea, bizi kalitatea hobetzea eta herritarrak garapen iraunkorrerako haztea du helburu.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Urte askotarako!

Arrasateko gazteriaren zati handi bat ospakizuanetan murgildu berri zaigu. Izan ere, apirila osoan Arrasateko gazte batzarrak (AGAKOK) ospitale zaharreko gaztetxea zabaldu zuteneko hamahirugarren urteurrenaren aldeko egitaraua antolatu du. Ospitale zaharrean zegoenaren 11 urteak eta oraingoak beteko dituen bi urteak, hain zuzen ere.


Egungo gaztetxea Udalak eman zien gazteei, baina ez meritu barik. Egungo gaztetxearen erabiltzaileek ospitale zaharrekoan lan handia egin zuten, baita aurreko belaunaldiek ere (Gurea zinema-aretoak barne), eta hori Udalak bazekien.

Uarkapekoa zabaldu zutenetik gazteak lanean fin ibili dira, ekintza mordoa

antolatu dituzte eta, garrantzitsuena, belaunaldi gazteagoak erakarri dituzte.

Lokal hori Udalak eman izanaren konplexua izan dute askotan, zerbait zor izango balute bezala. Kontua ez da okupatuta den eta fisikoki zerotik ia guztia egin behar izan duten edo ez. Garrantzitsuena da erabilpena ematea eta ahalik eta lagun gehienek hori erabiltzea. Horretan dabilta, beraz, egitarau zabal horri probetxua atera diezaiozuela!

ASTEKO IRUDIA



UBANE MADERA

ERAKUSKETA INDUSTRIALA ITXI EGINGO DUTE, MUSEO INDUSTRIALA PRESTATZEKO

Orain dela gutxi, Arrasateko alkate Ignazio Lakuntzak aditzera eman zuen Erakusketa Industrial itxi egingo dutela, eta berau Saiolango beheko solairura eramango dutela. Udalak asmoa du Erlojuaren Eraikinean behin-betiko Museo Industrial ipintzeko. Oraindik ez dute behin betiko proiekturik

idatzi, baina asmoa da beheko solairua aprobetxatzea, tunela barne. Modu berean, orain Erakusketa Industrial dagoen solairuan musika etxea ipintzea da asmoa. Eta museoari dagokionez, alkatearen esanetan, urtebetean gertu izango da. Beraz, agur, erakusketari, eta ongietorri, museoari! /U.M.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

arbolapeta



ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

MUSIKA/Goikobalu abesbatzak 15 urte bete ditu

Goikobalu abesbatzak 15 urte bete ditu, eta ibilbide luzea egin du, egoitza barik

IKER BARANDIARAN

Goikobalu abesbatzak 15 urte bete ditu. Hainbat sari irabazi ditu eta, birak eta grabazioak ere egin ditu. Orain dela hamar urte haren kimuak jaio ziren, harrobia ziurtatzeko. Oso balorazio ona egiten dute, baina kezka bat ere badute: egoitza propioa behar dute.

Goikobalu abesbatzak hamabost urte bete ditu. Gauzak asko aldatu dira sortu zenetik hona, eta oso gutxi esperoko zuten ibilbide oparoa egin du dagoeneko, ia sinestezina!

1989an, SUDCen baitan, Jesus Mari Artzek eta Anton Zumaldek herrian zeuden premiak aztertu zituzten. Zera erabaki zuten: abesbatza eta trikitixa eskola sortzea eta *play-back* lehiaketa antolatzea. Zumalde trikitixa eskolaz arduratu zen eta Artzek abesbatzaren ardura hartu zuen; eta bien artean *play-back* lehiaketa.

“Gogoan genuen gu gaztetxoak ginenean kalean herritarrek abesten ibiltzen zirela, eta horren hutsune handia ikusten genuen. Pentsatu genuen herria horren egarri zela. Aurretik beste abesbatza batzuk egon ziren: Arrasate Musikalekoa, Danok..., eta oraindik parrokiakoa zegoen, baina ez zen nahikoa”, azaldu zigun Artzek. Eta hala zen. Arrasateko musikazale mordoa batzar batera deitu zituzten: Juanito Artzamendi, Fertxu, Gurutze Uriarren, Basoko... Guztiei oso ideia ona iruditu zitzairen. Lehenengo deialdian 90 lagunek esku hartu zuten.

Batutakoek probak egin behar izan zituzten, eta horrekin batera batzarra osatu zuten. “Gutxieneko adina 15 urtean ezarri genuen, baina gogoan daukat 14 urteko gaztetxoren batek eskatu zigula bere adina ezkutatzeke”, gogoratu zuen Artzek. Lehenengo presidentea Txito izan zen eta abesbatzaren lehenengo zuzendaria, berriz, Luis Ignazio Ruiz de Alegria. Geroago, Eugenio Etxebestek eta Mikel Maidaganek hartu zioten lekukoa Ruiz de Alegriari.

ESTATUTUAK ETA IZENA

1989ko uztailean Goikobaluk lehenengo batzarra egin zuen Alkartu elkartean. Abesbatzaren helburuak zehaztu zituzten, izen aukeraketa abian jarri zuten eta irailera arteko programa zehaztu zuten.

Irailean, oportunitate bueltan, lau izen eraman zituzten, eta horiek bozkatu zituzten. Hona-koak izan ziren bozketaren emaitzak: Goikobalu, 29; Herensuge, 14; Arrasate, 2; eta balio-gabeak, 2. Hala, Goikobalu — Santa Barbarako gaina— hartu zuten izen-



Hamabost urteotan hainbat eta hainbat herritarrek esku hartu dute Goikobalu abesbatzan.

“Goikobalu Santa Barbarako gaina da, herri barruan dagoen tontorra”

XABIER BENGOA

“Parrokia bete-beteta ikusi genuenean, konturatu ginen asmatu genuela”

JESUS MARI ARTZE

Goikobaluren zuzendari Luis Ignazio Ruiz de Alegria oso zorrotza zen



Goikobaluk 1989ko abenduaren 23an egin zuen Arrasateko lehenengo kontzertua, San Juan Bataiatzailearen elizan.

tzat. “Izen arrasatearra hartu gura genuen, eta toponimia berreskuratzeaz gain, zer hobeto herri erdi-erdian dagoen tontor bakarraren izena hartzea baino”, azaldu zigun Goikobaluren egungo zuzendari Xabier Bengoak, sasoi hartan abesbatzaren batzarrean ere bazegoena.

EGOITZA FINKO BARIK, BUELTAKA

Horrez gain, batzar hartan, esku-ragarri zituzten hiru lokalen arteko aukeraketa egin zuten: abade etxea, San Viator eta Arrasateko Musika Eskola. Azkena gustatu zitzairen gehien, baina, halabeharrez, abade etxea hartu behar izan zuten. “Han, oso ondo hartu gintuzten, baina lokala txiki-kegia zen. Gainera, behin lapurretan egiten ahalegindu ziren... Handik denbora batera, Gazte-luondora joan ginen. Gaur egun, oraindik ez daukagu lokal finkorik. Ez daukagu gauzak non utzi, alferrik galtzen zaizkigu, eta ez dugu batzarrak egiteko edo elkartzeke leku propiorik”, azpimarratu zuten Bengoak eta Txito-k.

Finantzaketarekin ez dute arazo larririk eduki. Udalarari egotzen dioten gauza bakarra lokalaren kontua da, hamabost urte bete dituztelako lokal barik.

Gaur egun, entseguak egiten dituzte martitzenetan, 21:00etan.

ARRASATE PRESS



Argentinan egin zuten biraren bueltan, *onbu* zuhaitz tipikoa landatu zuten Santa Barbarako parkean.

Arrasateko Musika Eskolan, eta eguenetan, Gazteluondon.

LEHENENGO KONTZERTUA, PARROKIAN
1989ko abenduaren 14an, herriko komunikabideak prentsaurreko baterako deitu zituzten. Honako hedabideek esku hartu zuten: ARRASATE PRESS, *Diario Vasco*, *Egin* eta *El Correo*-k. Luntxa eskaini zuten, eta abesbatzaren berri eman.

Abenduaren 16an abestu zuten estreinakoz, Ordizian, eta abenduaren 23an eman zuten lehenengo kontzertua Arrasaten. San Juan Batailatzailaren elizan izan zen, Arrasateko Orkestrarekin batera. Besteak beste, honako kantuak abestu zituzten: *Adeste Fideles*, *Regina Caeli*, *Changeons Propos*, *Noel*, *Gauaren erdian* eta *Bili bili bonbolo*.

“Parrokia bete-beteta zegoen eta herritarrek oso ondo hartu gintuzten. Oso hunkigarria izan zen. Orduan jakin genuen asmatu genuela, herritarrek horren egarri zirela”, azpimarratu zuten Goikobaluko kideek.

Hori ikusita, lanean gogor hasi ziren. Are gehiago, zuzendari Luis Ignazio Ruiz de Alegria oso zorrotza ei da, eta lan handia egin behar izan zuten. Behin baino gehiagotan Barrian (Bizkaia) egonaldiak egiten zituzten kontzertuak prestatzeko.

LASTER, EMAITZAK

Non-nahi kontzertuak egin zituzten eta hainbat lehiaketatan esku hartu zuten: Lizarra, San Vicent de la Barquera, Hondarribia, Ejea de los Caballeros (Zaragoza)... eta Galesen!

Goikobaluko kideek gogoratzten dutenaren arabera, sasoi hartan lehia handia zegoen. “Azpeitikoekin genuen lehia handien. Behin, azpeitiarrak txapelketa batera alkatearekin joan ziren, eta hori ikustean, ez genuen irabazterik espero, baina azkenean gailendu egin ginen”.

Bilboko abesbatzarekin harreman handia egin zuten, eta euren artean lankidetzat bultzatu zuten. Gutxika-gutxika, maila hartzen

zihoazen, eta, halako baten, Vivaldiren *Gloria* grabatu zuten Donostian. Kaseteetan argitaratu zuten. Hura guztia denbora laburrean egin zuten.

Handik aurrera ez zegoen atzerapausorik: Beethovenen *9. sinfonia* Kieveko Orkestrarekin; *Carmina Burana* Errusiako Orkestrarekin —“Errusiarrek ez zuten lan hura ezagutzen, eta lehenengoan jo zuten”, nabarmendu

zuten—; Mozarten *Requiem*; eta Arrasmaninov-en *Visperas* Donostiako Hamabostaldiaren estreinaldiko kontzertuan!

Are gehiago, hainbat sari irabazi zituzten San Vicente de la Barqueran, Ejea de los Caballeros... Halako txapelketa baten eman zituzten hiru sariak eskuratu zituzten.

1998ko abuztuan Argentinara joan ziren. Hogeit bat egun egin

zituzten euskal etxeetan eta bestelakoetan abesten. “Oso hunkigarria izan zen. Jendea negarrez, gurekin kantuan... Lehentuta bukatu genuen: kontzertu mordoa egin genituen, mordoa jan genuen, parrandak ere ugari. Ez genuen atsedenik hartu, baina izugarria izan zen”, azaldu zigun Maribel Hernandezek. Handik *onbu* izeneko zuhaitza ekarri eta Santa Barbara parkean landatu zuten, Argentinarekiko senidetzaren sinbolo gisa.

‘OPERACIÓN GOIKOBALU’ ETA LAUSARDI
Orain dela urte batzuk, *Operación Triunfo*-ren arrakasta ikusita eta abeslarien premia zuten, *Operación Goikobalu* kanpaina bultzatu zuten, abesbatza indarberritzeko.

Lan handiagoak eta konplexutasun handiagokoak egiteko, Lausardi sortu zuten. Debagoieneko abesbatza sortu gura zuten, baina azkenean Bergarako Orfeoak eta Goikobaluk bakarrik esku hartu zuten. Lausardi da Bergara eta Arrasate artean, Eloregeri artean, bizi den landare baten izena.

Lausardik, besteak beste, Donostiako Hamabostaldian *Misa Benedicta* egin zuen, Bitoriano Gandiagaren omenaldian esku hartu zuen, eta Euskaldunan birritan izan da. Harritzeko da, Euskaldunan taldeek ez dutelako behin baino gehiagotan abesten.

Goikobalu ospakizunetan dabil. Joan den asteburuan, itsuz

Finantzaketarekin ez dute arazorik. Udalari egozten diote ez dutela lokalik

Hainbat txapelketa irabazteaz gain, Galesen eta Argentinan abestu dute

Goikobaluk eta Bergarako Orfeoak Lausardi abesbatza sortu zuten, lan handiagoak egiteko

osatutako Argia abesbatzarekin kontzertua egin zuten. Eta apirilaren 9tik 17ra Italiara joango dira. Besteak beste, kontzertuak egingo dituzte Vatikanoko San Pedro elizan, Ortonovon eta Bolognan. Horrez gain, turismoa ere egingo dute, jakina.

Harrobia ziurtatzeko, Goikobalu Txiki, Gazte eta Izartxoak

Orain dela hamar urte, Goikobalu abesbatzaren batzarrak —tartean Mikel Arregi— gazteagoekin lan egitea erabaki zuen, abesbatzaren harrobia ziurtatzeko. Horretarako, Goikobalu Txiki sortu zuten, eta Anuska Ezkurrak hartu zuen talde haren ardura. 40 bat gaztetxo batu, taldea osatu, eta geroago eta maila handiagoa hartu zuen.

1998an, Rakel Murgiondok hartu zuen Ezkurraren lekukoa. Murgiondok kontatutakoaren arabera, taldean beherakada izan zen, baina poliki-poliki berriro osatu zuten taldea. Horrez gain, 2000n, Goikobalu Gazte sortzea erabaki zuten. Horrela, 12 urtetik gorakoak sartu zituzten talde hartan; eta txikiagoak, Goikobalu Txikin. Murgiondoren esanetan, aldaketa hark onura egin zien, eta 6 eta 7 urteko abeslariak ere bazeudela konturatuta, ahotsen desberdintasunagatik beste banaketa bat egitea erabaki zuten. 2001ean, Izartxoak taldea sortu zuten, txikienei aukera emateko.

Horren arabera, gaur egun Goikobalun horrela dituzte banatuta gazte txoak: 4-9 urte artekoak, Izartxoak taldean; 9-12 urte artekoak, Goikobalu Txikin; eta 12 eta 18 urte artekoak, Goikobalu Gazte taldean.

Hiru taldeok Gazteluondoren aretoan egiten dituzte entseguak: Izartxoek, eguenetan, 18:15etik 19:00etara; Goikobalu Txikiok, eguenetan, 19:15etik 20:00etara; eta Goikobalu Gazteok, eguaztenetan, 19:30etik 20:30era. Hiru talde horien



arduradun Rakel Murgiondoren esanetan, talde horiek ondo moldatzen dira Gazteluondon. Are gehiago, ikuskizunen bat prestatzeko premia izan dutenean, egubakoitzetan eta zapatuetan ere erabili izan dute. Hala ere, azpimarratu zuten lokal hezea eta hotz samarra dela.

Rakel Murgiondo hiru talde horien arduraduna den arren, Murgiondok berak Goikobalu Gazte bakarrik zuzentzen du. Izartxoak taldearen zuzendariak Maialen Gonzalez eta Ane Undagoitia gazteak dira. Eta Goikobalu Txikin, berriz, Amaia Agoitiak egiten ditu zuzendari lanak. Horiez gain, Maider Ruizek ahots teknikak erakusten dizkie hiru taldeotako kideei.

Anuska Ezkurrak gaztetxoan abesbatza abian jarri zuenean, 40 bat kide ziren. Gaur egun, berriz, 65 bat

dira: Izartxoak, 20; Goikobalu Txiki, 30; eta Goikobalu Gazte, 15 bat.

Gazteen abesbatzak sortzeko helburu nagusia zen helduen abesbatzarako harrobia egitea. Murgiondoren esanetan, helburu hori neurri baten bete egin da, baina hobetu egin beharko litzateke. “Zoritxarrez, gazte askok ikasketak direla-eta abesteari uzten diote, eta horietako batzuk ez dira bueltatzen. Mutilen kasua larriagoa da. Batzuek kalean daukaten presioagatik eta lotsagatik eta beste batzuek kirola gurago dutelako, adin tarte jakin baten ez daukagu abesten duen mutilik. Pena da”.

Gaztetxoek hainbat txapelketatan hartzen dute parte urtean zehar, baita sariak irabazi ere: Errenteriako Gabon Kantuen Txapelketan, Debagoieneko topaketetan... Eta sarri irteerak eta egonaldiak egiten dituzte.

UDALA/ Martxoari dagokion ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean

Udalbatzarrak ez du onartu San Josepe harrobiari ustiatzeko luzapena ematea

UBANE MADERA

San Josepe harrobia itxi egin beharko dute. Hala erabaki zuen udalbatzarrak astelehenean. Proposamena zen harrobiari beste bi urtez luzatzea ustiatzeko baimena, baina EAJ alderdiak bakarrik egin zuen horren alde. PP abstenitu egin zen, eta gainerakoek kontra egin zuten.

Makina bat gai zituen lantzeko udalbatzarrak asteleheneko ohiko bilkuran. Baina sorpresa handiena San Josepe harrobiaren gainean hartutako erabakiak sortu zuen. Izan ere, eta aurreikuspenen kontra, EAJ bakarrik geratu zen harrobiaren defentsan.

GEHIENAK HARROBIAREN KONTRA

Gainera, harrobiaren kontra aurkeztutako idatzi asko irakurri zituzten. Batetik, harrobiko zenbait langilek, osasun arazoak direla-eta, harrobia ixteko eskatu zuten; harrobiak eragiten duen arriskuarengatik eskatu zuten hura ixtea Fagor Automatioken eta Fagor Arrasatek; Arrasate Dorreko bizilagunek, berriz, harrobiko leherketek dorrearen egituraren eragindako kalteengatik eskatu zuten ixtea. Horrez gainera, Ezker Batu-ko Ander Rodriguezek jakinarazi zuen harrobiaren kontrako sinadura bilketan San Josepeko ia auzotar guztiek sinatu zutela. Era berean, Ezker Batuaren izenean harrobia ixteko eskatu zuen.

Aralarko Joxe Etxeberriak esan zuen San Josepe harrobiak ez duela inolako keinurik egin Udalarekin hitzartutakoa betetzeko: 2004rako harrobia berreskuratzea. Hori ikusita eskatu zuen harrobia desjabetu eta egokitzeko.

PSE-EEren izenean Paco Garciak egin zuen berba. Esan zuen

Aralarrek, EAK, EBk eta PSE-EEk ustiatzearen luzapenaren kontra egin zuten

Auzo alkateen izendapena dela-eta, ika-mika izan zen EAJren eta PSE-EEren artean

harrobiaren gainean aurkeztutako dokumentazioak erakusten duela larregiko ustiapena egin dutela; ingurumenari begira harrobiak ez duela ezer egin eta auzotarren kexuak ere badirela. Harrobiko langileen etorkizuna kontuan hartzeko eskatu ostean, harrobia ixteko eskatu zuen.

EAKo Javier Nafarratek bat egin zuen Paco Garciarekin eta esan zuen txostenen arabera harrobiak gainditu egin dituela ezarritako ustiatze-mugak, eta auzotarren kexuak izan direla. Hala, harrobia ixteko eskatu zuen.

Bukatzeko, PPko ordezkari Itziar Lamarainek jakinarazi zuen auzotarren kexuen aurrean eta harrobiak Udalarekin hitzartutakoa bete ez duela ikusita, ezin dutela luzapenaren aldeko botorik eman; abstenitu egin ziren. Gauzak horrela, EAJ bakarrik geratu zen harrobiaren luzapenaren alde.

Osoko bilkuren aretoan harrobiko zenbait langile izan ziren, eta



Harrobiaren kontra aurkeztutako salaketetako batek dio San Josepek dezente gainditu duela Udalarekin hitzartutako ustiatze-muga.


udalbatzarrak hartutako erabakia jakitean, aretotik atera ziren atean danbatekoa emanda.

AUZO ALKATEAK ETA LHT

Bestelako gaien artean, auzo alkateen izendapenen berri eman zuten: Musakolan, Anton Aranbarri (EAJ-EA); Uribarrin, Juan Luis Rodriguez (PSE-EE); erdialdean, Ismael Errasti (EAJ-EA); Santa Marinaran, Julio Bellido (PSE-

EE); eta San Andresen, Rafael Garai (EAJ-EA). Azken horren izendapenak eztabaida piztu zuen EAJren eta PSE-EEren artean, auzo alkatea aukeratzeko bozketan berdinketa izan zen-eta. Alkateak adierazi zuen hori zela-eta boto gehien lortu zuen zerrendaburua ipintzea erabaki zutela. Paco Garciak berretsi zuen ez dagoela erabakiarekin ados eta jakinarazi zuen horren kontra

egingo zuela. Eta, Lastertasun Handiko Trenarekin lotutako mozio pare bat aztertu zuen udalbatzarrak. PPK aurkeztu zuen bat, eta EAK mozio alternatiboa. Oro har, bi mozioek proiektuaren alde egiten zuten, baina PPrenak kritikatu egiten zuen proiektu horren inguruan Jaurlaritzako alderdien artean dagoen ezadostasuna. Botazioa egin, eta udalbatzarrak EAren mozioa onartu zuen.



Etxerat elkartearen ohorezko presidente

Joxepa Arregi arrasatearra euskal presoan aldeko Etxerat elkartearen ohorezko presidente izendatu berri dute.

Joxepa Arregi oso ezaguna da, semearen eta gainerako presoan alde egiten duen lanagatik. Jesus Mari Zabarte du semea. Ekainean 20 urte beteko dira preso dagoela. Edozelan ere, 70eko hamarkadan eta geroago ere izana dago preso. Guztira, 25 urte daramatza kartzelan. Gainera, Etxeratik esan digutenez, oso zigor gogorak jasan ditu eta kartzela gogorrenetan izan dute.

LABUR

Txus Goikoetxea presoak ia 20 egun daramatza gose-greban kartzelako egoera salatzeko

Albaceteko kartzelan dago Txus Goikoetxea preso mondragoetarra. Joan den martxoaren 15az geroztik, mugagabeko gose greban dago, Albaceteko kartzelan jasaten duten egoera salatzeko. Hor-taz, gaur, barikua, 18 egun beteko ditu jan barik.

Arrasateko Askatasuna elkartetik bidalitako ohar baten arabera, Albaceten dauden euskal presoak bakartuta daude; hilabetean behin bakarrik berba egin dezakete etxekoekin; astean behin jaso dezakete lagunen bisita, baina, sei hilabetean, asko jota hamar lagunen bisita bakarrik izan dezakete. Horrez gainera, etxetik 627 kilometrora dagoen kartzela batean daude.

Gauzak horrela, euren bizi-baldintzak hobetzeko honako hiru eskaerak egin ditu Txus Goikoetxeak: astean behin deitu ahal izatea telefonoz, gainerako euskal presoekin batera egotea modulu berean eta bisitak egiteko hamar lagunen taldea hiru hilean behin aldatzea eta ez sei hilean behin, orain bezala. Hala, eskakizun hori egiteko ekin zion orain dela 18 egun mugagabeko gose grebari.

Egoera hori salatzeko, besteak beste, egunero kale bilkurak egiten dabilta, Herriko Plazan, 19:00etatik 19:15era.

ELKARRIZKETA

OSKAR BUSTO/KOMITE INTERNAZIONALISTAK TALDEKO KIDEA

“Faxismo egoera nagusitzen dabil Palestinan; horren kontra dabilta”

UBANE MADERA

Egunotan Palestinako eta Irakeko egoerak berba- gai izan dira Arrasaten, gerraren aurkako taldeak antolatuta. Hori aprobetxatu eta Palestinaren gainean berba egin dugu horietako hizlari batekin, Oskar Bustorekin, hain justu ere.

Palestinako egoera gertutik ezagutzen duzu, ezta?

Bai, handik jasotako informazioarengatik, han egondako jendearekin berbetan egon naizelako eta iaz han egon nintzelako. 15 egunez egon nintzen, ekain-uztailean. Eta brigadistak ere egon ziren iaz, Komite Internazionalisten bitartez. Halakoek asko laguntzen dute benetako errealitatea ezagutzen.

Zenbait adituk diote Palestinako gatazkak munduko bakea arriskuan jar dezakeela...

Israelek nazioarteko mehatxuak egin ditu bere inposaketek aurrera egiten ez badute. Arma nuklearrekin lotutako mehatxuak dira, gainera. Azken batean palestinarrek egiten dutena da euren egoera zein den adierazi, ahal duten moduan; hortaz, handik etor daitekeen mehatxua Israelengandik etorriko da. Han inguruko herrien artean indartsuena da, mota guztietako armak ditu.

Hortaz, zure ustez badago Hirugarren Mundu Gerra gertatzeko arriskurik?


Arriskua badagoen, ez dakit. Baina gauzak okertzen dabilta munduan. Ez bakarrik Palestinan, Iraken ere bai, Ekialde Hurbilean eta Urrunean, Afrikan, Ertamerikan, Hegoamerikan... Munduan gatazka asko daude eta geroago eta okerrago daude, faxismoak geroago eta erantzun gogorragoak eta bortitzagoak egiten dituelako.

Halako egoerak direla eta, Europak zergatik ez du egiten orain artekoa baino gehiago?

Europak egiten du. Europako Batasuna israeldarrak laguntzen dabil. Laguntza ekonomikoekin lotuta, adibidez, orain dela urte batzuk sinatu zuten akordio bat harreman komertzialak bideratu ahal izateko Europaren eta Israelen artean. Hortaz, Europak gatazka horretan duen paperik garrantzitsuena israeldarrei laguntzea da. Europak bere merkatuan sartzeko aukera eskaintzen dio Israeli eta harremanetan normalizazioa. Euskal Herrian dauden enpresa teknologiko eta banku askok kontratuak dituzte Israelekin.

Gauzak horrela, bada palestinarrendako esperantzarik?

Bai. Ni han egon nintzenezan asko harritu ninduen ikusteak daukaten itzaropena. Guk ikusten dugu euren egoera oso latza



U.M.

“Gauzak okertzen dabilta munduan, faxismoak erantzun bortitzagoak ematen dituelako”

“Guztion arazoa da palestinarrek jasaten duten egoera, euren borroka geurea ere bada”

dela, 30 urte baino gehiago dabiltzala etsaiari eusten... Edozelan ere, itzaropen handia dute eta borrokan eta eusten jarraitzeko asmoa, bizirik jarraitzeko eutsi egin behar diotelako eta euren eskubideen alde egingo dute euren bizitzaren alde egiten dituelako. Azken baten, euren bizitzak dituzte jokoan, eta edozeinek egingo lukeen moduan, eutsi egiten diote.

Eusten dabiltzala aipatu duzu; beste batzuek, berriz, hori terrorismoa dela esaten dute...

Hona etortzen zaizkigun berriak atentatuen, lehergailuen eta ekintza armatu gogorren gainekoak dira. Azken baten, Israeli komeni zaiona da gauza gordine- nak azaltzea. Guri izozmendiaren

punta iristen zaigu, ez besterik. Baina atentatu eta ekintza horien atzean jendea dabil borrokan. Eta batzuetan borroka horiek ahaztu egiten ditugu. Adibidez, han, emakumeen borroka oso gogorra da, euren egoera dela-eta eskubideak defendatzeko. Borroka sindikala ere bada, borroka politikoa eta gizarte zibilak egiten duen eusteko borroka. Eguneroko borroka dira, duintasunaren aldekoak.

Beste zerbait esan nahi baduzu...

Azpimarratu palestinarren borroka guztiona dela. Han faxismo egoera nagusitzen dabil, eta horren aurka dabilta. Faxismoa bera da leku guztietan; hortaz, euren borroka geurea ere bada. Denon arazoa da hango egoera.

Erakusketa Industriala museo izateko aurreneko pausoak

U.M.

Arrasateko Erakusketa Industriala itxita dago eguaztena ezker. Erakusketa Saiolango beheko solairura eraman behar dute, han museo sortzeko asmoa dute-eta. Hain zuzen, leku aldaketa egiteko itxi dute.

Ignazio Lakuntza alkateak jakinarazi berri du museo industrial antolatzeko egitasmoak aurrera jarraitzen duela. Izan ere, dagoeneko erabaki dute Erlojuaren Eraikinean sortuko dutela museo hori, eraikinaren beheko aldean. Oraindik ez dago behin betiko proiekturik, baina asmoa da beheko solairu osoa aprobetxatzea, tunela barne. Era berean, orain Erakusketa Industriala dagoen solairuan musika etxea ipintzea da asmoa. Eta museoari dagokionez, alkatearen esanetan, urtebetean gertu izango da.

ERAKUSKETA BAINO GEHIAGO

Erakusketaren arduradun Isabel Aramendiak esandakoaren arabera, erakusketa iraunkorra antolatuz gero asmoa da museo bat eraikitzea, horrek dakartzen zerbitzu guztiek: erakusketak egiteko eremu bat egongo litzateke, dokumentazio-gunea, lantegiak egiteko... “Orain, museoek gizartean paper garrantzitsua jokatzen dute eta geroago eta dinamikoagoak dira, agente kultural bihurtu dira; hori lortzeko, harreman bizia eduki behar dute gizartearekin. Horren ondorioz, ez da bakarrik erakusketa hutsa izango, aldi baterako erakusketak antolatuko ditugu, baita bestelako zerbitzuak ere”.

BISITA GIDATUAK EGIN DAITEZKE

Lehen esan bezala, dagoeneko itxi dute Erakusketa Industriala, leku aldaketa egiteko. Edozelan ere, Isabel Aramendiak jakinarazi digu oraindik badela bisita gidatuak egiteko aukera, hamar laguneko taldea osatuz gero. Horretarako 943

79 09 00 telefonora deitu beharra dago eta Isabel Aramendiarengatik galdetu.

OSO HARRERA ONA

2002ko ekainean zabaldu zuten Arrasateko Erakusketa Industriala. Haren arduradunak harre- ra ona izan duela esan digu: “Oso harrera ona izan du, orokorrean. Akatsak ere izan ditu. Inportanteena igogailu falta izan dugula. Kontuan izanda hirugarren solai- ruan dagoela, eta erakusketaren protagonista asko pertsona nagusiak direla, horrek eragozpenak sortu ditu. Era berean, ez ditugu izan erakusketa iraunkor batek izaten dituen zerbitzuak: komu- nak, adibidez. Baina, erakusketa planteatu genuenean, lehentasu- na eman genion aspektu bati: lehe- nengo pausoa ematea. Hasieratik genekien behin-behineko erakus- keta izango zela; baina garrantzi- tsuena egitea zen”.

Horrez gainera, kontatu digu erakusketan jasotako iradokizun- en arabera bisitariak uste dute- la museoaren proiektuak merezi duela. “Jendeak ulertu du era- kusketa oinarria dela eta museo- a eratzea dela asmoa”.


Bisita moten gainean, berriz, adierazi digu era guztietakoak izan direla: banakakoak, taldeka- koak... “Taldekakoek artean per- tsona helduekin egin ditugu, enpre- sako jendearekin, unibertsitate- koekin, Euskadiko ikastole- tako ikasleekin... Erakusketako edu- kiaren gainean, berriz, adierazi digu askori gustatzen zaiola, adi- bidez, Bizente Barandiaranen lan- tegia. Eta bestela, ikasleei, adibi- dez, kooperatibismoaren gunean dagoen 60ko hamarkadako sukal- deak ematen diela atentzioa.

Bukatzean, dei zabala egin gura die etxean industriarekin- eta lotutako edozein material dauka- tenei: “Orain toki bat daukagu gauza horiek gorde eta erakuste- ko, eta guri dagokigu gure onda- rea zaintzeko lan hori egitea”.



UBANE MADERA

Bisitari askori Bizente Barandiaranen lantegia gustatzen zaie gehien.



AL-ANDALUSEK ASTE SANTUARI HEGOALDEKO KUTSUA EMANGO DIO

Al-Andalus kultura elkarteak jo eta ke dabil lanean Aste Santua gogora ekartzeko ekitaldi bereziak egiten. Andaluzia aldean egun bereziak dira horiek, eta Arrasateko andaluziarrek gogora ekarri gura dituzte. Hainbat ekitaldi prestatu badituzte ere, antolatu duten saeta txapelketa azpimarratuko dugu. Gurean, aspaldian, gero eta jarraitzaile gehiago ditu Andaluziako kulturak eta, bereziki, hango musikak. Gero eta gehiago dira flamenko musikarekin gozaten dutenak, eta horren harira, zapatu gauean egingo duten saeta txapelketara joateko gomendioa egiten dizuegu. Gaueko 23:00etan hasiko da txapelketa eta sarrera doan izango da.



ZAHAR BERRIKO LAGUNEN BISITA IZAN GENUEN JOAN DEN ASTEAN GOIENAREN EGOITZAN

Joan den astean Zahar Berri egitasmoko lagunak izan genituen bisitan Goienan. Bi taldetan etorri ziren, eguenean batzuk eta egubakoitzean besteak. Zahar Berri herriko hainbat talderen ekimena da, eta bertan dabilzan herritarrek euskararen erabilera bultzatzea dute helburu. Horretarako, Zahar Berrin dabilzanek euskaldun zaharrekin mintza praktikak egiteko

aukera izaten dute, horrela, euren euskara maila hobetu egiten dute-eta. Azken baten, eginez ikasten da. ARRASATE PRESSen, Arrasate Irratian eta GOITBn egon ziren bi taldeak. Gaintzeko komunikabideetan ez dakigu barbarik egin ote zuten, baina geurean, behintzat, ez zuten askorik praktikatu. Aukera paregabea galdu zuten, normalean izaten dugu-eta zer kontatu!



DOKEAN JOKATZEKO OHITURARI EUSTEN!

Urte asko daramatza SUDC elkarteak Arrasaten dokean jokatzeko ohiturari eusteko lanean. Aurten 24 urte egingo ditu elkarte gastronomikoen arteko lehiaketak, baina herriko gazteak dira joko horri eutsi beharko diotenak. Gazteen artean doke joko bultzatzeko, oraingo domekan jokatu dute gazteei zuzendutako 20. doke txapelketa. Hurrera zaitzete Monterronera, ederto pasako duzue-eta!

ELKARRIZKETA

JOSE ANGEL LOPEZ/ZIKLISTA

"Aurten ere Euskadiko Opena irabaztea da nire helburua"

XABIER URZELAI

Master 40 kategorian, Jose Angel Lopez azkarrena izan zen joan den domekan Arrasaten jokatu zen mendiko bizikletako lasterketan. Euskadiko Openaren bigarren lasterketa zen, eta lehenengo proban bigarrena izan zen, Izkuen. Bere mailako onena da, oraingoz, baina oraindik hamar lasterketa geratzen dira.

Joan den urtean Euskadiko Opena irabazi zenuen. Aurten ere hori da helburua?

Bai, gurako nuke aurten ere txapelketa eskuratu, eta hori da, hain zuzen ere, daukadan helburuetako bat.

Euskadiko Txapelketa ere hor dago.

Bai. Euskadiko Opena 12 lasterketak osatzen dute, eta Euskadiko Txapelketa lasterketa bakarra da. Joan den urtean, Euskadiko Txapelketan hirugarrena izan nintzen, eta bigarrenak hamar segundoko aldea baino ez zidan atera. Ea aurten zer moduz nabilen.

Espainiako Txapelketan ezin izan zenuen esku hartu.

Ez, izena emateko orduan arazoak izan genituen, eta ezin izan nintzen lasterketa hartan egon. Pena eman zidan, nire ustez aurreko postuetan egongo nintzelako, baina aurten joateko asmoa daukat. Hori bai, penintsulan bada, bestela oso garestia da eta.

Zer moduz Arrasateko lasterketan?

Oso ondo, oso gustura geratu nintzen egindako lasterketarekin. Izan ere, etxean korritzen duzunean beti da berezia, lagunak animatzen izaten dituzu eta. Gainera, lasterketa antolatze lanean ibili zarenean bereziagoa izaten da.


Antolatzaileok gustura geratu zarete?

Bai, oso gustura. Joan den urtean neu ibili nintzen antolatzaile lanetan, eta pozik geratu baginen ere, gauza asko zeuden hobetzeko. Lan handia da pertsona bakarrak egiteko. Aurten, Ederra tabernako lagunak hartu dute lan hori, eta lan handia egin dute. Jende gaztea ibili da lanean, eta gauzak jende gehiagoren artean egiten direnean emaitzak hobeak izaten dira.

Lastima eguraldiarena.

Bai, etxetik bizikletarekin irten nintzenean ezin nuen sintesi ere egin. Bazirudien bertan behera geratuko zela lasterketa, baina azkenean ondo atera zen dena. Lokatz artean ibili ginen, baina gustura.

Euskadiko Opena 12 lasterketak osatzen dute: zein da



XABIER URZELAI

"Aurten Ederrako lagunak egin dute lan handien, eta oso lasterketa txukuna geratu da"

urteko lasterketa politena?

Argi dago neuretako politena eta bereziena Arrasatekoa dela, geuk antolatutakoa delako. Zirkuitua geuk egiten dugu, eta geuk prestatzen dugu guztia. Gainera, etxean korritzen dugu eta ez dago horrelakorik modukorik. Egia da, baina, beste herri batzuetan ere oso lasterketa ikusgarriak antolatzen dituztela.

Nondik nora ibiltzen zara entrenatzen?

Normalean errepedeko bizikletarekin ibiltzen naiz. Noizean behin mendira joaten naiz, baina errepedean ibiltzea garbiagoa da, ez zara horrenbeste zikintzen. Gasteiz aldera joaten naiz, zirkulazio txikiagoa egoten delako, eta Landa ingurua ere asko atsegin

"Arrasaten korritzea beti da berezia, lasterketa antolatzen ibiltzen garelako"

dut. Mendiko bizikletarekin Degurixa aldean ibiltzea dut gustuko.

Mendiko bizikletarekin ibiltzeko leku apropos bat?

Argi dago mendiko bizikletarekin ibiltzeko paraje eder asko daudela, baina ez dago zertan urrun joan. Debagoienean bertan leku ederrak daude mendiko bizikletarekin ibiltzeko.

Eta, non ibiliko zinateke gustura?

Ez dago nire aukeren barruan, baina Kanadan edo Alaskan bizikletan ibiltzeak sekulakoa izan behar du.

Amaitzeko: bizikleta marka bat?

BH edo Orbea. Azpimarratzeko moduko lana egiten dabilta, kalitate handikoa.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Betrayer - Dream Team	9-2
Abokajarro - Aloña Taberna	4-5
Speed Boys - AC Surcos	4-8
Etzerat - Iritz Taberna	6-6
Dribling - Rayo Aldeano	9-1
Tomahawk - Goma-2	5-0
AT Celaya - Saukelu Scream	1-5
You Know! - Lasagabaster	6-4
Lasagabaster - Saukelu Scream	1-4

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Betrayer	6	3
2. AC Surcos	6	3
3. Etzerat	5	3
4. Iritz Taberna	3	3
5. Aloña Taberna	2	3
6. Speed Boys	2	3
7. Abokajarro	0	3
8. Dream Team	0	3

PARTIDUAK

APIRILAK 3, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Dream Team - AC Surcos	Antola.
11:00: AT Celaya - You Know!	Antola.
12:00: Betrayer - Aloña Taberna	Antola.
13:00: Tomahawk - Lasagabaster	Antola.
15:50: Dribling - AT Celaya	Antola.
17:00: Abokajarro - Iritz Taberna	Antola.

APIRILAK 4, DOMEKA. EPAILEAK

10:50: Dribling - Goma-2	Antola.
12:00: Rayo Aldeano - Saukelu S	Antola.
13:00: Speed Boys - Etzerat	Antola.

B MULTZOA

P	J
1. Saukelu Scream	6 3
2. You Know!	4 3
3. Dribling	4 2
4. Tomahawk	4 3
5. Lasagabaster	2 3
6. AT Celaya	2 2
7. Rayo Aldeano	0 3
8. Goma-2	0 3

BIGARREN FASEA ARGITZEN HASI DA DAGOENEO

TALDE BATZUEK DAGOENEO AUKERA GUTXI DITUZTE

Bigarren fasean hiru partidu jokatu dituzte, eta oraindik beste lau partidu geratzen dira jokatzeke. Zortzi puntu jokoan egonda ere, dagoeneko argi dago goiko postuetan ze talde izango diren. Erdialdean daudenek oraindik badaukate gora egiteko aukera, baina ez genuke apusturik egingo Abokajarro, Dream Team, Rayo Aldeano eta Goma-2 taldeen alde. Lau talde horiek puntu bat bera ere ez dute eskuratu. Akaso, Abokajarro izango da lanak emateko moduan dagoen taldea. Goma-2 taldeko oso jokalaririk gutxi joan ziren joan den astean partidura, eta 5-0 galdu zuten Tomahawk taldearen kontra. Rayo Aldeano ere ez dabil azken urteetan bezain fin, aramaioarrek 9-1 galdu zuten eta Dribling-en kontra. Dream Team taldea ez dabil hobeto, 9-2 galdu zuten eta Betrayerren kontra. Azkenik, Abokajarrok partidu parekatua jokatu zuen Aloña Taberna taldearen kontra, eta oñatiarrek alde txikiagatik irabazi zuten (4-5). Hortxe dago talde batzuen eta besteen arteko aldea: batzuk oraindik ere gogotsu dabiltzala.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Ordizia - Mondra

Preferentea. Zapatuan. 15:30. Altamiran.

Mariño CD - Mondra

Ohor. Gazteak. Domekan. 12:30. Irunen.

S.Tomas Lizeoa C - Arrasate

Big. Gazteak. Domekan. 15:30. Berion.

Arrasate - Texas Lasartearra

Ohor. Kadeteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.

Oiartzun - Arrasate B

Big. Kadeteak. Domekan. 11:00. Oiartzunen.

S.Tomas Lizeoa - Arrasate

Infantilak. Domekan. 10:30. Berion.

Mondra - Bergara

Neskak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

Touring - Arrasate

Alebinak. Domekan. 11:00. Erreterian.

ESKUBALOIA

Erromo - AGR Arrasate

Igoera fasea. Domekan. 10:00. Faturan.

Arrasate - Pulpo

Kopa-Txap. Domekan. 11:30. Iturripen.

SASKIBALOIA

Gasnalsa - Ointxe Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 19:00. Gasteizen.

ERRUGBIA

Arrasate - Eibar

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

Arrasate - Bera Bera

Kadeteak. Zapatuan. 10:45. Garagartzan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ohor. Gazt. Mondra - S.Tomas Lizeoa 2-6

Big. Gazteak. Arrasate - Euskalduna 2-0

Big. Kadeteak. Arrasate B - Urnieta 3-0

Neskak (Kopa). Gasteiz Cup - Mondra 0-1

Infantilak. Arrasate - Aurrera Ondarroa 5-2

MENDIKO ESKIA

Isa Casado eta Leire Ezpeleta lehenak izan ziren, taldeka, Andres de Regil Kopan

Lehenengo postu horri esker, Euskadiko Kopan Isa Casado bigarrena sailkatu da eta Leire Ezpeleta hirugarrena. Ana Bernal izan da lehena

XABIER URZELAI

Isa Casado eta Leire Ezpeleta mondagoetarrek ondo baino hobeto amaitu zuten Euskadiko Koparako baliagarria zen azken proba. Andres de Regil Kopa taldeka egiten da, eta arrasatearrek Ana Bernalekin batera osatu zuten taldea. Domekan ez zuten kontrariorik izan; eurak izan ziren azkarrenak.

Eguraldi txarrak gura baino gehiago baldintzatu du aurten go Andres de Regil mendiko eski-kopa. Elurrak, hotzak eta hai-zeak bultzatuta, Picos de Europako mendietan egiten den probaren antolatzaileek ibilbidea aldatzea erabaki zuten. Hala, proba 1.700 metroko desnibela izatetik 1.800 metroko desnibela izatera pasa zen. Lasterketan taldeka hartu zuten esku, eta guztira 52 talde izan ziren. Lasterketaren gainean berba egiteko Isa Casadorekin izan gara: "Hasiera baten, Leirek eta biok osatu behar genuen taldea, baina Ana

Bernalek galdetu zigun ea gurekin etortzerik zeukan, eta baietz esan genion". Lasterketa irabazteko ondo etorri zitzaion Ana taldean izatea, baina horrek bazuen bere alde txarra: "Ana gure aurretik zegoen sailkapenean eta Leire eta biok oso motibatuta geunden lasterketa ona egin eta Ana atzean uzteko. Talde berean izan ginenez, puntu berak eskuratu genituen, eta ezin izan genuen Ana atzean utzi. Hala ere, oso gustura geratu gara egindako txapelketarekin".

Gustura baina pena apur batekin geratu da Isa: "Egia esan, Formigalen izan nuen beherakadak pena ematen dit, lehenengo postuagatik lehian ibiltzeko aukera galdu nuelako". Euskadiko Kopan lortutako postuei esker datorren urtean Euskadiko selekzioan egoteko aukera izango dute Isak eta Leirek. Horrez gain, gonbidatuta daude datorren urtean Alpeetan jokatuko den Pierra Menta proba prestigiotsuan esku hartzera: "Ea animatzen garen".



Isa Casadok, Ana Bernalek eta Leire Ezpeletak osatu zuten domekan taldea, eta eurak izan dira Euskadiko Kopako onenak.

Azkeneko partiduan erakutsitako seriotasunari eustea helburu

X.U.

Azkeneko bi asteotan ezohiko emaitzak izan ditu Mondrak. Aretxabaletako hanka-sartzea Atxabalpen konpondu zuten zapatuan mondagoetarrek. Eta emaitza aldeko izatea baino taldeak erakutsi zuen seriotasuna izan zen garrantzitsuagoa. Eta beharrezkoa da seriotasun horri eustea.

Ordizia hemezortzigarren postuan dago, jaitsiera postuetatik irteteko lehian. Horregatik dira ordiziarrek arriskutsuak, eta horregatik joan behar du Mondrak kontuz. Atxabalpen, jarraitzaileen aurrean itxura polita erakutsi zuen Arrasateko taldeak zapatuan. Aloña Mendi ez zen kontrario izan; arrazoi askogatik, gainera. Arrasatearrak nahiko seguru ibili ziren atzealdean, eta zelai erdian aurrekoetan baino lan handiagoa egin zuten. Horrez gainera, Josu Zubiaren mutilek gola egiteko aspaldi erakutsi ez duten erraztasuna erakutsi zuten Aloñaren kontra.

HELBURUA LEHENBAILEHEN BETE

Gabonetatik hona Mondraren helburuak asko aldatu dira, eta mailari eusteko beharrezkoak




ARRASATE PRESS

Defentsan ondo eta erasoan hobeto; Mondrak sei gol egin zituen zapatuan.

diren puntuak lehenbailehen eskuratzea da Arrasatekoek egin behar dutena. Hori lortuta, sailkapenean ahalik eta goren geratzeko egin beharko dute lan. Taldeari ezin zaio eskatu Liga Txapelketa hasieran izan zuen maila bera erakustea, jokatutako partidu guztiekin jokalariek ez daukate-eta orduko freskotasunik. Baina bai eskatu behar zaie zapa-

tuan erakutsi zuten seriotasunarekin jokatzea. Asteburuan, Ordiziako jokalariek ez dira Arrasatekoak baino hobeto egongo. Joan den astean lehia handia izan zuten Amaikak Bat taldearekin, eta ordiziarrek puntu bat eskuratu zuten Deban. Asteburuan Ordizian irabazita Mondrak 44 puntu izango lituzke: lehenengo helburua ia beteta.

FOTOKIROLA



Ezbeharrak, futbitoan jokatzen zebilela

Francisco Lafuente 29 urteko gazte mondagoetarra zapatu goizean hil zen, lagunartean futbitoan jokatzen zebilela. Oraindik ez dago argi kolpe baten ondorioz edo bihotzekoak emanda hil zen. Gaztetan Mondran ibilitakoa, urte askotan Zaldibarko eta Iturripeko futbito txapelketetan jokatzen zuten. Eta gehien atsegina izan zuten ezbeharra. ARRASATE PRESS egiten dugunon partetik besarkada handi bat, senitarteko eta lagunei.

Bizkaiko Erromo taldearen kantzara joango da AGR Arrasate domekan

XABIER URZELAI

Domekan kontrario gogorra izango dute AGR Arrasateko mutilek, Bizkaiko Erromo taldearen kantzara joatuko dute-eta (10:00etan, Faduran). Pitxi Herreroren mutilek partidua irabaztea dute buruan, hori lortuta aurrerapauso handia egingo lukete-eta.

Igoera fasean ezinbestekoa da etxeko partidua irabaztea, baina kanpotarren kantzara puntuak eskuratzeko ere garrantzi handia dauka. Igoera fasea ondo hasi eta gero —lehenengo partiduan AGRk justu-justu irabazi zien Deustukoei—, joan den astean Pitxi Herreroren mutilek ezin izan zuten punturik ekarri Urola Agip talde gipuzkoarraren kantzatik. Mondragoetarrak lehenengo jardunaldian baino askoz ere hobeto jokatu zuten, baina azkeneko bost minutuetan taldeak behera egin zuen, eta gainera, epailea kontran izan zuten.

BI PARTIDU KANPOAN

Arrasateko taldeak orain dauka estutu beharra, bi partidua jarraian jokatu ditu-eta etxetik kanpo. Etxean ez dute arazorik izango motibatuta jokatzeko,



ARRASATE PRESS

Etxean jokatuak partiduetan erakutsi behar du AGRk sendotasuna.

baina kanpotik puntuak ekartzea izugarri eskertuko lukete, sailkapenari begira batez ere. Zumarragan ez zen posible izan, baina joko mailari eusten badiote eta erregulartasunarekin jokatzen badute, Herreroren mutilek gauza dira Erromori irabazi eta sailkapenaren goiko aldean egoteko.

Argi dago bizkaitarrek talde ona daukatela. Orain dela bi aste Urolak ezer gutxi egin ahal izan

zuen Erromoren kantzara. Talde sendoa da, etxean jokatzen duenean, batez ere.

BADAKITE NOLA JOKATZEN DUTEN

AGR Arrasateko Erromoren kontra jokatu ez badu ere, mondragoetarrak badakite hark etxean nola jokatzen duen. Arrasateko hainbat taldekide Faduran izan ziren Erromoren eta Urolaren arteko partidua ikusten. Eta horrek asko laguntzen du.

Maria Jose Gil lehena Espainiako Kros Txapelketan

X.U.

Maria Jose Gil atleta arrasatearra sasoi betean dagoela erakutsi berri du, Espainiako Kros Txapelketan lehena helmugaratu eta gero. Bost mila metroko lasterketan nagusitu zen Maria Jose Gil.

Arrasateko atletismo taldeko taldekideek lan polita egin zuten Ourense, Espainiako Kros Txapelketan. Maria Jose Gilek egin dako marka aipatzekoa da, 64 urteko atleta lehena helmugaratu zen-eta beterano mailan. Javier

Mentxakak ere lasterketa ona egin zuen, eta hamaseigarren postuan helmugaratu zen, beterano mailan baita ere. Cesar Diez, berriz, 30.a izan zen.

MARKEL BLANCO CACERESEN

Nagusiak Ourense izan baziren ere, Markel Blanco Caceresen izan zen maila txikietako Espainiako Kros Txapelketan. Arrasatearra 31.a izan zen, eta marka ona da hori, azken baten, arrasatearrak lehenengo urtea du-eta kadete mailan. Atleta nagusien kontra korritu behar izan zuen, eta lasterketa ona egin zuen.



ARRASATE PRESS

64 urte baditu ere, sasoi betean dago Maria Jose Gil.

FOTOKIROLA



Gasnalsaren kontra neurtuko ditu indarrak Ointxe Arrasatek

Denboraldiko norgehiagoka ikusgarrienetako bat Ointxe Arrasatek eta Gasnalsak Iturripen jokatuko zutenean bizi izan genuen. Orduan, Arrasateko taldeko jarraitzaile asko izan ziren Iturripeko harmailetan, eta publikoaren berotasuna erabakigarria izan zen partidua irabazteko. Oraingo asteburuan Ointxek Gasteizen jokatu du, eta Zurutzaren mutilek ez dute hango giroa aldeko izango. Gasnalsak jokalaririk onak baditu ere, mondragoetarrak partidua irabazteko gauza izan ziren, eta bihar ere hori izango dute helburu (Mendizorrotza pabilioan, 19:00etan). Joan den astean, ibarrek jokalaririk osatutako taldeak gorriak ikusi zituen Paules Carrefour taldea mendean hartzerako, eta Ointxekoek azkeneko minutuetan ondo jokatu erabaki zuten partidua (98-92). /X.U.

DUATLOIA

Zuhaitz Ezpeleta bigarrena izan zen, domekan, Durangoko duatloian

Zuhaitz Ezpeleta mondragoetarrak lasterketa ona egin zuen Durangon, eta bigarren postuan helmugaratu zen. Bedoñakoak bete du helburua: esprint kategorian 3 lasterketa egin gura zituen, Euskadiko Txapelketarako puntuagarriak, eta sailkapenean dagoeneko lehena da mondragoetarra. Ezpeletak amaitu du aurtengo duatlo denboraldia; oraindik hainbat lasterketa geratzen dira, baina Arrasatekoak mendiko lasterketetan esku hartu gura du.

ERRUGBIA

Arrasatek bihar arratsaldean jokatu du Eibarren kontra, Garagartzan

Bi asteko deskantsua hartu eta gero, Arrasateko mutilek bihar arratsaldean (16:00etan, Garagartzan) jokatu dute Eibarren kontra. Egia esan, txapelketa amaitu arte geratzen diren partiduek gatz gutxi izango dute, Arrasate dagoeneko igoera fasetik kanpo geratu da-eta. Datozen partiduetan bosgarren postuagatik ibiliko dira lehian David Jauregiren mutilek.

DOKEA

Domekan, Arrasateko gaztetxoek dokean jokatu ahal izango dute Monterronen

SUDCekoei eskerrak, aurten ere Doka Txapelketa antolatuko dute. Elkarteen arteko txapelketa Aste Santutan jokatu badute ere, oraingo domekan, motorrak berotzen joateko, gaztetxoek txanda izango da. Domeka goizean jokatu dute Arrasateko gaztetxoek 20. Doka Txapelketa. Dagoeneko hogeitun urte egin dituzte edizioak; elkarteen arteko txapelketak, berriz, 24 urte egingo dituzte aurten.

Goizeko hamarretan hasiko da gaztetxoek txapelketa. Parte hartzeko neska-mutikoek ez dute gauza handirik egin behar; nahikoa izango da ordu horretan Monterrongo zelaira joatea.

Etzi, domeka, Agatha Christieren 'La Ratonera' antzezlan egongo dute

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Txalo taldeak *La Ratonera* antzezlan egongo du Amaia antzokian. Antzezlan hori Agatha Christie idazlearen liburu baten oinarrituta dago, izen handiko liburua berau. Muntaketa berria egin dute.

Etzi, domeka, antzerkia izango da Amaia Udal Antzokian. Txalo taldeak *La Ratonera* antzezlan ezagunaren muntaketa berria ekarriko du Arrasatera. 19:30ean izango da. Besteak beste, honako aktoreek esku hartuko dute: Jaime Blanch, Cristina Rivera, Pablo Calvo, Fermin Sanles, J. Luis Mendiara, Klara Badiola eta Ane Gabarainek, hain zuzen ere.

La Ratonera Agatha Christie idazlearen thriller ezagunetakoa da. Neguko gau hotz baten ostatu erraldoi batera hainbat maizter joango dira asteburua igarotzeko asmotan. Horieta bat hilik agertuko da, eta poliziak ikerketa egingo du. Poliziaren galdeketa etxea sagu-zulo bilakatuko du.

Antzezlan hori 1952an idatzi zuen Agatha Christiek, eta orduan egunero-egunero antzeztu dute Londresko hainbat antzokitik, baita Sydney eta Buenos Airesen ere.



Aktore ezagunek esku hartuko dute intrigazko antzezlan horretan.

Orain dela gutxi muntaketa berria egin dute, eta honakoan, Agatha Christieren beraren pertsonaia irudikatzen duen aktore batek ere hartzen du parte. Hercules Poirot eta Jane Marple andre-

arekin batera tea hartzen ari da Christie, eta antzezlanaren hariaren gainean berba egingo dute.

Txalok ibilbide luzea egin du antzerkigintzan; aktore ezagunek esku hartzen dute lanean.

TXALO EKOIZPENAK

Aditzera eman dute XVII. Arrasate Lehiaketan irabazleen zerrenda

I.B.

AEDk aditzera eman ditu XVII. Arrasate Lehiaketan irabazleen izen-abizenak. Guztira, 149 lan jaso dituzte, lau sailetan banatuta. Sari banaketa ekitaldia apirilaren 22an izango da, Monterronen.

AEDk antolatzen dituen XVII. Arrasate Lehiaketan epaia aditzera eman dute. Ibar osoko gazteek esku hartu dute, eta guztira 149 lan aurkeztu dituzte. 85 ipuin, 24 poesia, 12 bertso paper eta 28 komiki, hain zuzen ere.

AEDko Kultura Saileko arduradun Kepa Lizarralderen esanetan, orokorrean aurkeztutako lanek maila polita dute, eta 15 eta 16 urte bitarteko sailean eta 17 urtetik gorako sailean parte-hartzeak gora egin du.

Apirilaren 22an, eguena, egingo dute sari banaketa. 18:00etan izango da, Monterronen. Ordura arte irabazleek ez dute jakingo zein sari eskuratu duten.

IBAR OSOKO PARTE-HARTZAILEAK
Ipuinen sailean honako hauek jasoko dituzte sariak: Oihane

Urtzelai, Hasier Eraña, Beñat Barberena, Oihane Zabala, Iban Aparicio, Ahinize Errasti eta Jone Sagastak, hain zuzen ere.

Poesiaren arloan, honako hauek dira finalistak: Oihane Garcia eta Deiane Galdos, Jone Sagasta, Ariana Albariño, Onintza Langaran, Maialen Linazasoro, Iban Gonzalez eta Asier Osinaga, hain zuzen ere.

Bertso paperetan honako hauek jasoko dituzte sariak: Olatz Ezpeleta eta Nekane Castellano, Amaia Sanchez, Julen Agiriano eta Ander Lizarraldek.

Komikien sailean, honako hauek dira finalistak: Iratxe Arrese, Iraitz Guridi eta Sara Romero, Danel Iriarte, Unai Pagaldai eta Manex Rus, Marta Garcia eta

*Apirilaren 22an,
eguna, izango da
sari banaketa
ekitaldia, 18:00etan,
Monterronen*

Unai Azkarate Ilarduia.

Horrez gain, euskalki-grabazioan ez du inolako saririk banatuko. Lizarralderen esanetan, azkeneko urteotan oso lan gutxi aurkeztu dituzte euskalki-grabazioen sailean.

Horiek guztiek apirilaren 22an Monterronera joan beharko dute sariak jasotzera.

ANTZEKO KOPURUA

Orokorrean, aurreko urteetakoekin alderatuz, parte-hartzea ez da askorik aldatu. Azkeneko urteotan, batez beste, 150 lagunek esku hartu dute urtero.

14 urte baino gutxiago dutenen artean zelanbaiteko beharada izan da, baina 15 eta 16 urte artekoen artean eta 17 urte baino gehiago dituztenen artean, parte-hartzea handiagoa izan da.

Herriei dagokienez, parte-hartzaile gehienak arrasatearrak izan dira, baina izan dira baita Aretxabaleta, Aramaio, Bergara, Eskoriatza eta Oñati-koak ere. Sarituen zerrendan ibarreko herri gehienetako lagunak daudela azpimarratu dute.

Euskarazko bost film labor eta 'Lost in Translation' filma

I.B.

Gaur, egubakoitza, ez da zineklubik egongo. Horren ordez, Topaguneak eta AEDk euskarazko bost film labor emango dituzte, 20:30ean. Bihar eta astelehenean, *Lost in Translation* filma emango dute.

Gaurko, egubakoitza, AEDk eta Topaguneak bost film laburren emanaldia antolatu dute. Bostak zinemagile euskaldunek egin dituzte eta euskarazkoak dira. Honako hauek emango dituzte: Ane Muñozen *Basurdea* komedia, Aitzol Aramaioren *Terminal* drama, Maru Soloresen *Dortoka uhartea* fikzioa, Koldo Almandozen *Belarra* fikzioa eta Asier Altunaren *Topeka* komedia. Guztira bost film laburrok ez dira ordu-betera heltzen.

Emanaldi horien ostean, Aitzol Aramaio zuzendariak berbaldia egingo du. Ikusleek zinemaren gainean dituzten zalan-


tzak, galderak eta iritziak azaltzeko aukera izango dute. 4 euro ordaindu beharko dira.

SOFIA COPPOLAREN AZKEN FILMA

Bestalde, zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan, eta astelehenean, 20:30ean, *Lost in Translation* filma emango dute. Film hori Sofia Coppolaren egin du; Francis Ford Coppola zuzendariaren alaba da, eta 1998a ezkeror dabil zuzendari.

Sofiaren lehen film luzea, *Virgenes Suicidas*-ek, ospe handia hartu zuen. Honako hau bere bigarren lana da. Bob eta Charlotte estatubatuarrek Tokion daude, asper-asper eginda, eta halako baten topo egingo dute. Oso harreman ona egingo dute. Bide batez, zuzendariak Tokioren alderdiak erakutsiko dizkigu.

Bill Murray aktorea da protagonista (*Los Tenenbaums, una familia de genios; Los Angeles de Charlie*), baita Giovanni Ribisi (*Cold Mountain; 60 segundos...*) eta Anna Faris (*Scary Movie...*) ere.



Sofia Coppolaren zuzendutako *Lost in Translation* filma.

Al-Andalusek Aste Santua ekarriko du gogora asteburuan

I.B.

Al-Andalus elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Aste Santua gogora ekartzeko. Gaur, egubakoitza, argazki erakusketak ipiniko dute. Bihar, bideo emanaldia eta saeta txapelketa egingo dituzte.

Ezagun da andaluziarren kulturaren Aste Santuak garrantzi handia duela. Horregatik, urtero hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, Aste Santua ospatzeko eta hura gogora ekartzeko.

Gaur, egubakoitza, Andaluziako Aste Santuaren gaineko argazki erakusketak ipiniko dute. Besteak beste, Andaluzian egindako prozesioak jasoko ditu.

Bihar, zapatua, *Momentos cofradieros sevillanos* bideo emanaldia egingo dute, 22:30ean. Horren ostean, 23:00etan, saeta txapelketa jokatu da.

ABESTUTAKO PROMESAK

Saetak abestutako promesak dira. Aste Santuko erromesaldietan egiten direnak. Hiru motatako saetak daude, guztiak cante flamencoarekin lotuta: segidilla, soledadeak eta martinetak. Hiru abeslariek esku hartuko dute: Ane diñoko Gabino Carmonak eta Vitorio Hernandezek eta Durangoko Sebastian Frailek, hain zuzen ere.

Saeta txapelketak, 45 minutu iraungo du. Sarrera doan izango da.

E, TXO!

UDALEKUETARAKO BEGIRALE BILA DABIL TXATXILIPURDI

Txatxilipurdi 2004ko udalekuen prestaketa lanak egiten dabil, eta uztaileko udalekuetan begirale lana egin gura dutenei gonbidapena egin gura die. Interesa dutenek Txatxilipurdi elkartearen egoitzara (Pablo Uranga, 4) eraman beharko dituzte curriculum-a, argazki bat, Naren kopia eta begirale edo zuzendari titulua. Izena emateko azkeneko eguna da apirilaren 23a. Derrigorrezkoa izango da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta, horrez gain, Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile prestakuntza saioetan esku hartzea.

'ESKUAK ELKARRI'-RAKO HORMA-IRUDIAK

Hainbat elkartek egin gura duten *Eskuak elkarri* ikuskizunerako horma-irudi lehiaketa antolatu dute. Arrasaten bizi edo erroldatutako edozeinek esku hartu ahal izango du. Horma-irudien neurriak 50x70 zentimetro izango dira, kartelak nahitaez bertikala izan beharko du, eta euskarri informatikoan ere aurkeztu ahal izango da DIN A3 tamainako paperean. Derrigorrez honako testua izan beharko du: *Eskuak elkarri antzezlan*. Irabazleak 360 euroko saria jasoko du. Horma-irudiak apirilaren 15a baino lehen bidali beharko dira Txatxilipurdi elkartera.

LUDOTEKA IBILTARIA USAETXE PLAZAN

Biharko (zapatua), Txatxilipurdi elkarteak ludoteka ibiltaria antolatu du Usaetxe plazan, 11:00etatik 13:30era. 12 urte arteko ume eta gaztetxoak jolastuko dira, Txatxilipurdiko begiraleekin batera.

GUREGAIK/ GAZTETXEAREN URTEURRENA

'11+2 urte zirikatzen!' lelopean egitaraua antolatu du Arrasateko gazte batzarrak

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Uarkapeko gazteteak bi urte bete ditu, eta apirilera ekitaldi mordo antolatu dituzte. **11+2 urte zirikatzen!** lelopean, AGAKOK, gazteteako batzarrak, hilabete osorako berbaldiak, kontzertuak, filmak, jaiak eta bestelakoak antolatu ditu.

Dagoeneko bi urte pasatu dira Udalak Uarkapen eraikitako gaztetea zabaldu zutenetik. AGAKOK, gazteteako batzarrak, behin eta berriro esan du gaztete hori Arrasaten azken hamabost urteotan gazteriak egin duen lanaren emaitza dela. Horregatik, ospitale zaharreko gaztetea kontuan hartuta, hark bete zituen hamaka urteak eta oraingoaren biak zenbatu dituzte.

HILABETE OSOKO EGITARAUA

Urteurreneko ekitaldiak hilabete osoan egingo dituzte. Atzo, eguna, hasi zituzten. *Hamar elkarriketa* liburuaren gaineko solasaldia egin zuten. 80ko hamarkadako hainbat kontu izan zituzten berbagai. Bihar, zapatua, bertso-bazkaria egingo dute. Besteak beste, Amets Arzallusek eta Sustrai Colinak esku hartuko dute. Bazkaria 14:30ean izango da, baina horren aurretik triki-poteoa egingo dute, 12:00etan.

Apirilaren 6an, *Ciudad de Dios* filma emango dute. 9an, Marea talde nafarrak diskoa aurkeztuko du. Kontzertu horrek jakin-min handia eragin du, eta sarrerak salgai ipiniko dituzte Iratin eta Ekaitzen.

Apirilaren 16rako kontzertu ikusgarria antolatu dute. Gasteizko Betagarri eta Japoniako Doberman taldeek esku hartuko dute. Bi taldeek ska musikan oinarrituko dute emanaldia. 18an, Pánico Escénico taldeak antzezlan egingo du, 19:00etan.

Apirilaren 22an, *Ibarra suntsitzeko proiektu "ekologikoak"* lelopean, berbaldi interesgarria egingo dute. Egin gura dituzten azpiegituren aurkako taldeek



Apirilaren 16an, Japoniako Doberman (irudian) eta Gasteizko Betagarri taldeek ska kontzertua egingo dute.

BETAGARRI

Gazte batzarrak azken bi urteotako balorazio positiboa egin du, eta lanean jarraituko du

ibarrean dauden proiektuak azalduko dituzte. Apirilaren 23an, Monty Python taldearen filmen gaineko maratonia egingo da. 24an, pintxo eta sagardo dastatzea egingo dute, 11:30ean. 25ean, antzezlan egingo dute, 18:30ean. 29an, eguena, Elgoibarko gaztetearen gaineko bideo emanaldia eta berbaldi egingo dituzte, 19:00etan. 30ean, *Ekintza Zuzena* aldizkariaren azkeneko zenbakia aurkeztuko dute, eta horren ostean, MCD eta Los Chicos Boom taldeek kontzertua egingo dute.



Uarkapeko gazteteak jarduera ugari egin ditu bi urteotan.

ARTXIBOA

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

LAKET
Bonaventure Diesel
Pepe Levis
Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Edertu
Ile apaindegia • Solariuma
San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BEHEKODENDATIK

Lorea Perosanz

EGO LEIHO ETA PERTSIANAK

XABIER URZELAI

Lorea ermuarra da, baiñe Mondraguen bizi da. Oktubrien zabaldu euen Zerrajerako etxietan dauen dendie, baiñe Ego enpresie ez da barrixe. Oin dala hamabost urte sortutako enpresie da, eta Ermuan eta Durangon dendie ipiñi eta gero, Mondragueraiño aillegau die.

Ze falta jako Mondragueri?

Giro apur bat. Ikasle asko dauen herrixe da, baiñe ez da igeriten. Ambientie falta jako.

Eta, ze dauko ona?

Mondraguetarrok esaten dozue zulo baten bizi zariela. Neu ermuarra nazenez, Mondrague oso herri politte dala pentsetan jat: parkiek, lasai egoteko lekuek...

Ze falta jatzu zeuri?

Ezer be ez.

Eta, ze dauketzu sobran?

Umore ona, adibidez.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Good bye, Lenin! / 1984 / Paolo Conte gustetan jat.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Afrikako edozein lekutara juengo nitzake, oporretan.

Zergaittik Afrikara?

Gabonetan Senegalen egon nitzelako eta asko gustau jatelako. Segittuen juengo nitzake barriro be hara.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Bizirik egongo balitz, Oteizakin.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Irriparrie.

Denbora librien ze egitten dozu?

Pasiau, leidu, margotu...

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Baserri turismoren baten-edo.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Babes ofizialeko etxe asko egin



“Gurie moduko negozio batendako inportantie da taillerraz gain dendie be eukittie”

biher dittuela, danondako.

Ze lan egitten dozue Egon?

Klase askotako leihuek jarten dittugu, persianak, kortiñak, tolduek... Horrez gain, diseinu lanak be egitten dittugu.

Zeuon toldoren bat eruen dau inox hego-haixiek?

Geuk dakigule ez. (Barre).

Toldue jarteko lekue euki biher.

Ez pentsau, toldue jarteko ez dauketzu zertan sekulako terrazie euki. Mondragueko Udalak ez dau ixten, baiñe beste herri batzuetan, esate baterako, leihuetan be jarri leike toldue.

Denda barrixe jarri dozue Zerrajerako etxietan. Gustora?

“Alde haundixe dau leihuek kataloguen edo esposiziñuen ikustien artien; oso diferentie da”

Bai, neuk uste dot lekuekin asmatu egin dogule. Gaiñera, geurie moduko negozio batendako dendie eukittie inportantie da, normalien taillerrak izeten die-eta. Eta, jentiendako errexau be denda batera juetie tailler batera juetie baiño.

Zeuon lokalien leihorik ez da falta.

Ez, esposiziñue daukou, eta inportantzia haundixe emuten dutzou horrei. Izen be, gauza bat da kataloguen ikustie, eta beste bat da benetan zelakue dan ikustie.

Bukaketako: gaur egun ez da izerdirik bota biher persianie jasoteko.

Ez, automatikuek die. (Barre).

NIREBIDAIAHURA/ Bittor Iñarra


Hegoafrikara / 2001eko abuztuan

Kruger parkean utzi genituen joan den astean Bittor eta Jasone. Bost egun parkean egin ondoren, Johannesburgora itzuli ziren: “Auto bat errentan hartu eta gure kontura joatea erabaki genuen. Hegoaldera egin zuten, kostaldera, eta handik ekialderako bidea hartu zuten: “Bidean hainbat parke naturalatan izan ginen. Ez ziren Kruger parkea bezain handiak, baina parke guztiek zeukatzen zerbait berezia. Horrez gainera, parke bakoitzak animalia ezberdinak ikusteko aukera eskaintzen zuen”.

Parke barruan zebiltzanean, lo egitera justu-justu iristen ziren lo egiteko prestatuta zeuden zonetara: “Hesiekin inguratutako tokiak izaten dira, animaliarik ez sartzeko, eta arratsaldeko azken orduan itxi egiten dituzte. Egun osoa batetik bestera ibili eta gero, azken momentuan korrika eta presaka ibiltzen ginen lo egiteko lekuetara iristeko. Behin, pista batetik gindoazela auto bat ikusi genuen errepidearen erdian. Ezin zuen aurrera egin, errinozerontek zeudelako errepidearen erdian. Ikusgarria da horrelako animalia handi bat gertu-gertutik ikustea; haren ondoan gure automobila ez zen ezer. Kontua da berandu genbiltzala, eta parkea ixteko ordua zela; eta baita itxi ere. Han ibili ginen, parke barruan, batetik bestera. Irteeretako baten hainbat etxola zeuden, eta hango natiboeke parkeko giltzak zituztenez kanpora atera ahal izan ginen. Bestela, parke barruan igaro beharko genuen gaua. Gainera, ikustekoa da gaur oihanean zelako bizitasuna dagoen”.

Kostaldetik barrualdera egin zuen Arrasateko bikoiteak, Drakersberg-eko mendikatera. Datorren astean izango duzue bidaia honen amaieraren berri.

XABIER URZELAI



Parke bakoitzak animalia desberdinak ikusteko aukera ematen du.

“Inpresioa ematen du errinozeronten ondo-ondoan ikustea”

“Ikustekoa da gaur oihanean egoten den bizitasuna”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



Uribarriko 30 bat erretiratu joaten dira hilero oinezko ibilaldiak egitera.

Uribarriko erretiratuek oinezko ibilaldiekin jarraitzeko asmoa dute

IKER BARANDIARAN

Askotan esan ohi da eda detuak ez direla ia mugitzen eta denbora gehiena jarrita egiten dutela. ARRASATE PRESSko orrialde hauetan askotan ezeztatu dugu hori, eta erakutsi dugu hirugarren adinean hainbat eta hainbat herritarrek egiten duten lan guztia. Hainbat erretiratut diotenaren arabera, lan bariko sasoi hori aproposa da iraganean, denbora faltaren ondorioz, egin ezin izan ez dituzten gauza horiek guztiak egiteko.

Herriko erretiratuen elkarte guztietan hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dituzte, eta orokorrean herritarrek oso ondo erantzuten dute. Horien artean, komeni da Uribarriko elkarte nabarmentzea. Izan ere, Arrasateko bakarra da oinezko ibilaldiak antolatzen dituen.

Erretiratuen elkarte guztiek egun bateko irteerak eta bidaiak lizeagoak antolatzen dituzte. Uribarrikoak ere bai. Baina azken honek hilean behin Arrasateko

udalerrian barrena oinezko ibilaldiak egiten ditu. Neguan salbuespena egiten dute, baina gaitzuzko hilabete guztietan ibilalditxoak egiten dute.

2004ko lehenengo irteera apirilaren 27an, martitzena, izango da. Uribarritik irten eta Gernika Oinezkoen Zumardian barrena

Oinezkoendako baliabideak

Arrasateko erretiratu gehienak pòzik daude aspaldian herrian oinez ibiltzeko jarri dituzten baliabideekin.

Gernika Oinezkoen Zumardiak asko lagundu du horretan. Auto artean ibili barik, paseatzeko aukera handiak ematen ditu horrek.

Erretiratu askok diotenez halako ingurune baten premia handia zegoen, eta pozik daude.

Kataideraino joango dira. 16:00etan dute hitzordua, eta bi ordu inguru emango dituzte oinez. Handik bueltan, Uribarri elkartearen askaria egingo dute.

ALDAPA BARIKO IBILALDIAK

Hainbat urte igaro dira Uribarri erretiratuen elkarte halako ibilaldiak antolatzen hasi zenetik. Hilero egiten duten hitzorduan 30 bat lagunek esku hartzen dute, emakumezkoek eta gizonezkoek. Ibilaldietara joaten diren zaharrenek 75 urte dituzte. Uribarriko presidente Manolo Uriberen esanetan, ez da komeni izaten zaharagoak izatea, bi orduko ibilaldiak direlako. Gehienetan, aldapa bariko ibilaldiak izaten dira, baina badira salbuespenak: iaz, Udalara autobusez igo ziren eta oinez jaitsi; eta aurten, Urkulura joateko asmoa dute.

Hala ere, gehienetan, Gernika Oinezkoen Zumardiak ematen dituen aukerez baliatuz, Aretxabaletara, Garagartzara edo Kataide ingurura joaten dira. Oso ekintza osasuntsuak direla diote, eta pozik daude.

LABUR

Peñiscolara joateko txartelak eskuragarri, eta oraindik izena emateko epea zabalik

Abaroa elkarteak Peñiscolara joateko antolatu duen bidaiarako izena emateko aukera dago oraindik. Guztira, 165 lagunendako lekua dago. Ibarreko edozein erretiratu joan ahal izango da. Interesatuak 270 euro ordaindu beharko dituzte. Bestalde, aurretik izena emanda dutenek, astelehenetik aurrera, Abaroako bulegoan bidaiaren bigarren erdia ordaindu beharko dute, eta txartelak jaso ditzakete.

Apirilaren 22an, Abaroa erretiratuen elkarteak Arnedora txangoa egingo du

Apirilaren 22an, eguena, Abaroa erretiratuen elkarteak Arnedora (Errioxa) txangoa egingo du. Bi autobus joango dira. Logroñora bidean hamarretakoa egingo dute. Arnedo bisitatuko dute, eta Azagran, Venecia ostatuan bazkalduko dute. Apirilaren 6a baino lehen eman behar da izena, eta 15 euro ordaindu.

Apirilaren 7tik 11ra bitartean, Uribarri erretiratuen elkarteak oporrak hartuko ditu

Apirilaren 7tik, eguaztena, apirilaren 11ra, domeka, bitartean Uribarri erretiratuen elkarte itxita egongo da, eta zerbitzua etenda egongo da. Hala jakinarazi digute Uribarriko erretiratuen batzarretik, eta hala erabaki dute Arrasateko Udalaren oporretako araudian oinarrituta.



Istripuen prebentzioa berbagai, Uribarrin

Apirilaren 15ean, eguena, Kutxak antolatutako berbaldia egingo dute Uribarri erretiratuen elkartearen. Berbaldia istripuen prebentzioaren gainekoa izango da, eta, batez ere, etxean zein kezka edo ardura hartzea komeni den azalduko dute. Horrez gainera, inoiz ezbarharren bat gertatuz gero zelan jokatu behar den azalduko dute. 17:00etan izango da. /I.B.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiaik

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20




Gambrinus garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko apirilaren 2a / 103. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Onartu dute aurrekontua: milioi eta erdi euro pasatxo

UBANE MADERA

Onartu dute aurtengo aurrekontua: 1.582.921,22 euro. Horri, Udalak lehenagotik daukan 90.000 euro pasatxoko defizita gehitu behar zaio. Hala ere, aurreikusitako sarrerak kontuan hartuta (1.675.464,45 euro), aurten defizit bariko aurrekontua izatea espero dute Udalean.

Milioi eta erdi pasatxoko aurrekontutik, 478.644,35 euro inbertsioetarako izango dira. Horren barruan, inbertsiorik handiena Arexolako lanak egiteko izango da: 44.571 euro ur eta gasifikazio lanak egiteko eta 266.660 euro zoladura lanak egiteko. Behin hori guztia eginda, auzo hartako lanekin bukatzeko, urbanizazio lanak egitea falta izango da; datorren urterako utzi dute hori.


Auzoekin jarraituz, esan beharra dago Eguzkierripako lanen gainean luzapena eskatzeko asmoa daukala Udalak, aurtengo aurrekontuan ezin izango dituztelako lanok sartu. Hori bai, auzo horrekin lotutako proiektua aurten egiteko asmoa dute.

Horrela, azken proiektu horrekin amaituko ditu Aramaioko Udalak auzoen oinarriko beharrak betetzeko lanak. Edozelan ere, Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu zenbait auzotan, nahiz eta gutxieneko zerbitzuak beteta izan, hainbat lan egiteko daudela oraindik: Azkoagan eta Barajuenen, esaterako, gasifikazioa egitea falta da eta Etxaguenen ur eta saneamendu azpiegiturak hobetu behar dira. Horren harira, Errotabarriko gasifikazioa egiteko 15.000 euro zehaztu dituzte.

BESTELAKO INBERTSIOAK

Auzoetakoez gain, bestelako inbertsioak aipatzearen, alkateak jakinarazi digu San Martin Eskolako lanak bukatzeko 36.000 euro zehaztu dituela Udalak; Latakoko landaketa egiteko, 15.706 euro; eta Ibarra lan hidrografikoak egiteko, 21.305 euro.

Kultura ekimenei dagokienez, aurtengo jaiek 20.000 euroko aurrekontua izango dute; gaztetxearen lokalak egokitzeko ere izango da partidaren bat; 9.000 euro inbertituko dituzte liburutegia informa-



Ohikoa baino areto txikiagoan egin zuten joan den asteko udalbatzarra.

tizatzen; eta herriko kultura elkarrekin lotuta, 6.000 euro gorde ditu Udalak taldeei banatzeko. Talde bakoitzak dituen proiektuen arabera egingo dute banaketa.

Oro har, ez dago berrikuntza berezirik aurrekontuetan. Urtean ohiko ekimenak izango dira: Gabonetako ospakizunak, margo lehiaketa... eta, horrez gain, aurten, Bizente Goikoetxearen omeneko ekitaldiendako kopuru bat gorde dutela esan digu Mertxe Mondragonek. Aho batez onartu zituzten aurrekontuak.

MOZIOAK ETA ALEGAZIOAK

Aurrekontuez gain, beste lau puntu ere landu zituen udalbatzarra joan den eguneko batzarrean. Bi puntutan, hAMAlauk egindako

Arexolako lanak egiteko izango da inbertsioen ataleko diru kopururik handiena

eskaerari eta talde berak kaleratutako idatziari erantzun zien alkateak. Besteak beste, hAMAlauk 2003ko hauteskundeetan jasotako 300 botoei dagozkien hiru zinegotziak lortzeko formula legala aurkeztu zion Udalarri, eta zinegotzi horien eskubideak exijitu zizkion. Alkateak erantzun zien eurak ez daudela ados hAMAlau taldearen legez kanporatzearekin, baina, era berean, hAMAlaukoek legez ez dutela zinegotzi moduan jarduteko eskubiderik, eta EAJk eta EAK ez dutela hiru zinegotziri uko egiteko asmorik.

Eta hAMAlauk kaleratutako idatziaren gainean eta zergen aldatari egindako alegazioaren gainean zera adierazi zuen alkateak, besteak beste: kalean ipinitako idatziak ez duela egiazko informaziorik ematen. EAJk ez zegoen soldata kobratzearen salaketaren gainean zera dio: eginikoz konturatu bezain laster bueltatu zutela soldata eta konturatu barik eta fede txar barik kobratu zutela. Bukatzeko, tasen igoera delata, dio idatziko kopuruak ez direla benetakoak, eta tasen igoera egiteko inguruko herrietako tasak hartu dituztela kontuan.

LABUR

'Giza paisaiak' izenburua duen argazki erakusketa izango da Aramaion

Gaur, barikua, argazki erakusketa zabalduko dute Sastiñan 20:00etan hasiko da aurkezpen ekitaldia. Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolako argazki taldeak antolatu du erakusketa. Hain zuzen ere, talde bereko kideek egindako argazkiak izango dira ikusgai Sastiñan. *Giza paisaiak* izenburua ipini diote erakusketari. Hala ere, nahiz eta aurkezpen ekitaldia gaur izan, datorren astelehenean, apirilak 5, zabalduko dute erakusketa, eta honako egun hauetan egongo da zabalik: apirilaren 5ean, 7an, 9an, 12an, 14an eta 16an. Arratsalde zabalduko dute, 19:00etatik 20:30era.

Babes ofizialeko etxeen aurreneko lanak aurrera

UBANE MADERA

Aurrera doaz babes ofizialeko etxebizitzak egiteko aurreneko lanak. Hain zuzen ere, etxe horiendako azpiegiturak sartzen dabilta orain. Aurreikuspenen arabera, abendurako bukatuko dituzte lanok. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak etxeak eraikitzeko proiektua esleituko du.

Dagoeneko dezente eraldatu da Pedro Ignacio Barrutia kale ingurua, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko aurreneko lanen ondorioz. Etxebizitzok behar dituzten azpiegiturak (ura, argindarra, saneamendua...) sartzeko lanak egiten dabilta. Alkateak jakinarazi digunez, abendurako bukatzea espero dute. Eta lanak egiten dituzten bitartean, Eusko Jaurlaritzak

etxeak eraikitzeko proiektua esleituko du. 44 etxebizitza eraikitzen da asmoa. 40 errepedearen gainean daude etxeak, eta beste 40 aldean eraikiko dituzte eta beste 40 aldean eraikiko dituzte. Etxebizitzetatik lau-edo zehaztutakoak dituztenendako izango dira. Eta gainerakoek artean erabiltzen dituzten aramaioarrendako.

ERREKA ONDOKO PARETA

Egiten dabilta lanen artean erreka ondoan eraikitzen dabilta zana pareta ikus daiteke. Alkateak argitu digu erreka gainean eraikiko pasabidea egingo dutela eta horretarako dela. Edozelan ere, zenbait herritar ez daude aldean paretarekin, besteak beste, ez dutelako erreka errespetatzen, eta aurrera begira erreka gainean eraikikoak eta haztea ezinezkoa egingo duelako. Gainera, zalantza dago hori egitea legezkoa den.



Erreka gaineko aldetik pasabidea egingo dute, etxeen ostean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKOEN EMAITZAK

Zorte eskasarekin, neskek 0-10 galdu zuten joan den zapatuan Lan eta Jolas taldearen kontra. Mutilek, berriz, azkenaldiko emaitzei utsi eta 11-2 irabazi zioten Canciller Ayala taldeari. Oraingo asteburuari begira, neskek Jesus Obrero taldea izango dute aurre, 11:00etan, Aramaion. Eta mutilek, berriz, Lan eta Jolas taldearen kontra jokatu dute, Izarran, 11:00etan.

BARIKUKO ZINEMA

Bukatu dira martxoko zinema-saioak, baina dagoeneko antolatutako dituzte apirilakoak. Hala, oraingoan, Peter Weier zuzendariaren *Master and Commander: al otro lado del mundo* filma emango dute.

DOMEKAKO ZINEMA

Zientzia fikziozko filma emango dute: *La liga de los hombres extraordinarios*. Sean Connery aktore eskoziarra da protagonista.

BERTSOLARITZA

Gaur, barikua, Manex Agirrek bertsotan jardungo du Idiazabal. 20:30ean.

Laugarren postua eskuratu zuen Andere Arriolabengoak zapatuan

U.M.

Oihane Perea eta Asier Otamendi gailendu ziren bertsolarien zapatuko finalerdian. Andere Arriolabengoa, berriz, laugarren geratu zen. Adierazi zuen lasai egon zela saioan eta irabazi ez arren, horixe dela garaipena berarendako. Orain, gainerakoek zer egiten duten ikusi behar.

Urrezko Aizkoraren probak bukatu ostean hasi zuten bertsolariek zapatuko saioa. Sei lagun ziren lehian, eta guztiek ere maila ona erakutsi zuten. Lehiaketaren antolatzaile Xenpelar elkarteak esan digunez, zortziko nagusian akats barik egin zuten aurrera bertsolari guztiek eta zortziko txikian, adibidez, Andere Arriolabengoak ale politak bota zituen, urduri samar hasi zen arren. Hamarreko txikian, berriz, bertsolari guztiak fin ibili ziren.

Anderek *Asteleheneko Goienkaria*-ri esandakoaren arabera, gustura dago egindako lanarekin, ez zuelako izan bestetan izan ohi duen tentsiorik. Hala, ikusten du bere burua badoala apurka-apurka patxada hartzen.

Kontuak kontu, puntuak banatzeko orduan, Asier Otamendi eta Oihane Perea gasteiztarak lehen



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Zapatuko lehiaketako bertsolarien artean gazteena Andere Arriolabengoa aramaiarra izan zen.

postuan geratu ziren, biek ere 318,5 puntu lortuta. Ruben Sanchez izan zen hurrengoa, 296 punturekin. Eta Andere Arriolabengoa laugarren, 275 punturekin. Gauzak horrela, aurreneko biak finalera igaroko dira seguru aski, puntu ugari eskuratu dituzte-eta. Gainerakoek, berriz, hurrengo finalerdiaren

emaitzen zain egon behar dute, zein igarotzen den ikusteko.

BIHAR, LAUDION

Hain zuzen, bihar, zapatua, jokatuko dute finalerdi hori, Laudio-ko Lanbide Heziketako eskolan. Manex Agirrek jardungo du, honako hauekin batera: Rikardo

Gonzalez de Durana, Juan Mari Juaristi, Serapio Lopez, Alberto Martinez eta Iñaki Viñasprerkin. 19:00etan hasiko da. Hala, Aramaioko eta Laudio-ko saioetan puntu gehien batzen duten sei bertsolariak izango dira apirilaren 25ean Gasteizen jokatuko den finalean.


Papargorri abesbatzari saria eman diote

Papargorri abesbatzako neska-mutikoei sari bat jaso berri dute. Joan den barikuan eman zieten saria Gasteizko Alava 7 telebista-ko langileek. Eskolan entsegua egiten zebiltzala harrapatu zituzten Papargorriko abeslariak, eta gainera, irabazi zutela ez zekitela. Horren ondorioz, ezusteko polita hartu zuten irabazle plaka eman zieten.

Gabon kanten lehiaketa batean irabazi dute saria Papargorrikoek. Alava 7 eta El Correok antolatutako lehiaketa hori Gabonetan. Hamar taldek parte hartu

zuten, eta guztien artean, Papargorri aukeratu zuten epaimahaiak, musikariz osatutako lau adituk.

Saria hartu ostean, entsegurekin segitu zuten Papargorrikoek. Izan ere, joan den asteburuan, Arrasaten izandako Debagoieneko eskola arteko abesbatzen topaketan parte hartu zuten. Arizmendi Ikastolak antolatutako. Alemania, Berriz, Oñati, Arrasate eta Aramaioko 350 gaztetxok parte hartu zuten. Amaia antzokia bete egin zen haiei entzuteko, eta pozik asko ateratu ziren ikusitakoarekin.



UBANE MADERA

Ezusteko polita hartu zuten Papargorriko neska-mutikoei saria jasotzean.



Denetarik izan zuten Arbel Egunean

Aurtengo Arbel Eguna zapatuan ospatu zuten, makina bat ekitaldirekin. Eguerdian partean meza entzun zuten kooperatibakoek; gero, urteko batzarra egin zuten; eta haren ostean, bazkaria. Arratsaldean, berriz, Urrezko Aizkoraren saioa jokatu zuten Aramaion, Vicente eta Mugertzarekin. Vicentek irabazi zuen norgehiagoka 18 segundoren aldearekin. /U.M.

ERRETRATUZAHARRA

Centro
Catolicoren
gainekoa

Arrasateko Centro Catolico izango dugu berbaigai oraingon. Ondoko argazkia zentro haren 50. urteurreneko argazkia da. Besteak beste, Francisco Urrutia maisuari omenaldia egiteko elkartu zen irudiotako taldea. Honako hauek dira, goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Vicente Sagasta, Jose Maria Uranga, Pedro Otadui, Alfonso Gorroñogoitia, Jose Luis Arroitia, Jose Azkarate, Jose Markaide eta Pablo Ezkurra. Eta beheko ilaran, ezkerretik eskumara honako hauek agertzen dira: Luis Aretxaga, David Arzamendi, ezezaguna, On Jose Luis Iñarra, On Jose Maria Arizmendiarrrieta eta Jose Antonio Goñi.

Arrasateko Centro Catolico 1904an sortu zuten. Lehengo Resusta kalean izan zuen egoitza. Katolizismoarekin lotutako jendea batzen zen han. XX. mendean hainbat aldaketa izan zituen, baina bere izaera bakezale eta adiskidetzailari eutsi zion beti. Denetarik egiten zuten han: antzerki-emanaldiak, abesbatzen entseguak, irakurketak,



jaiak... Aurrerago, adibidez, 40ko hamarkadaren amaieran eta oso ezkutuan bada ere, sasoiko egoeraren mugimendu apurtzaile baten lehen aztarnak azaldu ziren Arrasaten. On Jose Maria Arizmendiarrrietak zerikusi handia izan zuen bilakaera aurrerazale

hartan. Eta batzar oso kritikoak eta ekarpen nabarikoak egiten zituén Ekintza Katolikoaren Zentroan (Centro de Accion Catolica). Hala, denbora luzez, zentroa Arrasateko herritar kezkatuen bilgune izan zen. Dena egin zitekeen han: langileen oinarrizko

bizitza-premiak aldarrikatu, proiektu industrialak aurkeztu...

Argazkia: 'Arrasate, langileek eraikitako herria'
Informazioa: 'Arrasate, langileek eraikitako herria' eta 'Nire haurtzaroko Arrasate'
Urtea: 1954

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Nafarroa
etorbidearen
biziberritzea

Lehengo tren geltokiko inguruak ilunak dira. Nafarroa etorbideko zati hori ez da Arrasateko leku kuriosoena: argi gutxi, hainbat enpresa eta eraikin zaharrak. Debagoieneko Ospitaleko leihotatik begiratu gero, kalean ikusten denak ez du askorik animatzen. Gerta daiteke Zerrajerako etxebizitzak egiten dituztenean zona hori erabat biziberritzea.



≈ 1990 Urte hartan, Nafarroa etorbideko bizilagunek protesta egin zuten Gelmak botatzen zuen kea larregikoa zelako.



2004 Protesta modura, bizilagunek etxeko zaborrak lantegira botatzen zituzten. Udalak espedientatu egin zuen Gelma lantegia.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA


- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Arrasate Irratia

Beti airean.

24 ORDU ETENGABE EMITITZEN



PARTE HARTU IRRATIAN

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

Etxeko konponketak

Elektrizitatea



Aranzabal Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora